

# EKINTZEN BILDUMA | 2014

## BILAN D'ACTIVITÉS

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN BILTZAR NAGUSIA | 2015/04/18  
ASSEMBLÉE GÉNÉRALE DE L'INSTITUT CULTUREL BASQUE DU 18/04/2015

# AURKIBIDEA

**Euskal kultur erakundeko barne antolaketa** .....3. orrialdea

**Euskal kultur erakundeko ekintzak :**

**1. Kultura politika publikoen laguntzea**.....5. orrialdea

1.1 Herriko hautetsien formakuntza : euskal kultura .....5. orrialdea

1.2 Hezkuntza artistiko eta kulturalaren arartekolaria izan .....5. orrialdea

1.3 Herri elkargoak lagundu beren politika kulturalen finkatzen .....6. orrialdea

1.4 Irakurketa publikoaren garatzea kultura publikoetan ..... 7. orrialdea

1.5 Aholkularitza artistikoaren ekartzea tokiko kolektibitate eta kultura egiturei.....9. orrialdea

1.6 AMO misioak segitu, Pirinio-Atlantikoetako departamenduarentzat.....9. orrialdea

**2. Egitasmo berriak eta egituratuak bultzatu**.....10. orrialdea

2.1 Ondare inmateriala : EKEren kultura publikoaren oinarria .....10. orrialdea

2.2 Euskal dantza egitasmoaren jarraipena .....10. orrialdea

2.3 Euskal zinemaren hedapena Euskal Herrian .....14. orrialdea

2.4 Gazte sorkuntzaren sostengatzea .....15. orrialdea

**3. Kultura eragileak eta elkarteak lagundu**..... 17. orrialdea

3.1 Ahozko ondarea bildu eta baloratu.....17. orrialdea

3.2 Euskal kulturari hezi ..... 18. orrialdea

3.3 Publikoaren eta guneen hedatzea .....20. orrialdea

3.4 Kultura aktoreen eta elkarte-kideen sostengatzea .....28. orrialdea

**4. Informatu, jendarteratu, komunikatu** .....52. orrialdea

4.1 Publikoak lagundu beren informazio bilaketetan ..... 52. orrialdea

4.2 Hedapen tresnak ekoiztu eta kudeatu .....54. orrialdea

4.3 EKEren ekintzen inguruko komunikazioa ..... 58. orrialdea

**Euskal Herriko lurralde kontratua** ..... 59. orrialdea

**« Culture-Kultura » emaitza fondoa** ..... 60. orrialdea



## Euskal kultur erakundeko barne antolaketa

### **BILTZAR NAGUSIA :**

299 kidek osatzen dute : 153 kultura elkarte eta 146 herri (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

### **Administrazio kontseilua**

Euskal kultur erakundearen administrazio kontseiluaren osaketa, Mikel Erramospé-ren lehendaritzapean :

Instituzioen taldea

#### **Estadoaren ordezkariak :**

- Pierre-André Durand jauna, prefeta
- Patrick Dallennes jauna, suprefeta
- Arnaud Littardi jauna, DRAC-eko zuzendaria

#### **Akitania Eskualdearen ordezkariak :**

- Alice Leiciagueçahar anderea
- François Maitia jauna

#### **Pyénées-Atlantiques Departamenduko ordezkariak :**

- Marie-Christine Aragon anderea
- Guy Mondorge jauna

#### **Eusko Jaurlaritzako ordezkaria**

- Clara Montero anderea

Herrien taldea

#### **Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikataren ordezkariak :**

- Kati Miranda anderea
- Jean-Claude Iriart jauna

Kultura eragileen taldea

- Pierre-Paul Berzaitz jauna
- Ximun Carrère jauna
- Jean-Baptiste Coyos jauna
- Adélaïde Daraspe anderea
- Juhane Dascon jauna
- Danièle Duhalde anderea
- Mikel Erramospé jauna
- Christiane Giraud anderea
- Roger Goyhénèche jauna
- Filipe Lesgourgues jauna
- Peio Soulé jauna

## Gomitatuak

- Bernadette Soulé anderea
- Erramun Baxok jauna (hizkuntza politikan aditua)

**Konduetarako komisarioa :** Michel FAGOAGA

## BULEGOA :

Lehendakaria :.....Mikel ERRAMOUSPE  
Lehendakariordea : .....François MAITIA  
Diruzaina : .....Peio SOULE  
Idazkaria : .....Ximun CARRERE

## TALDE PROFESIONALA :

**Zuzendaria :** .....Pantxo ETCHEGOIN

**Kontularitza / Idazkaritza :**.....Maddalen ERROTABEHHERE-DUPUY (% 88-a)

## Sail arduradunak :

### **\* *Kultura politika publikoen aholkularitza saila***

Politika publikoen arduradunak ..... Clémence LABROUCHE  
(ama-oporretan 2012ko urriaz geroz)  
Mailys IRIART  
(2012-11-05etik goiti, kontratu mugatuan)

### **\* *Arte eszeniko eta arte bisuala sailak***

Egitasmo arduraduna.....Frank SUAREZ

### **\* *Irakurketa publikoa saila***

Karguduna : .....Maia ETCHANDY

### **\* *Etnologia & kultura ondare inmateriala saila***

Etnologoa : .....Terexa LEKUMBERRI  
Ahozko ondarearen artxibatze karguduna :..... Maite DELIART

### **\* *Argibide eta multimedia saila***

Informazio zaintzaren  
eta multimedia egitasmoen arduraduna: .....Jakes LARRE  
eke.eus webgunearen animazio eragilea : ..... Frederik BERRUET

# 1 | Kultura politika publikoen laguntzea

## 1.1 | Herriko hautetsien formakuntza

2014eko hauteskundeak eta gero, hautetsiekin “topaketa tailerrak” proposatu izan ditu Euskal kultur erakundeak, helburu hauekin :

- Haien lurraldekiko kulturak duen garrantziari sentsibilizatu;
- EKEk dituen funtsa eta eskumenak esplikatuz, kultura politika publikoen eraikitzeke bere aholkularitza errola azpimarratuz;
- euskal kulturaren oinarriak partekatu.

Errobi-Aturri, Garazi-Baigorri, Xiberua, Hazparne, Bidaxune, Iholdi-Oztibarre eta Amikuzeko herri elkargoetan izan dira topaketak. Helburuak bete izan dira eta partaidetza xedea azkartu da.

## 1.2 | Hezkuntza artistiko eta kulturalaren (HAK) arartekolaria izan

### 1.2.1. Heziketa Artistiko eta Kulturalaren zerbitzuko Baliabide Zentroa

2013an, Euskal kultur erakundeak azterketa bat egin du, euskal kulturaren heziketari dagokionez, ipar Euskal Herriko eskaintza zertan den jakiteko. Ikerketa horri esker, alde baikorrek baina ere eskasiak azpimarratuak izan dira, lurraldeen arabera zatiketa argi batekin.

Aipatu beharretatik abiatuz eta Heziketa Artistiko eta Kultural mailan ari diren instituzio guzietako dispositiboaren osagarri izateko arrangurarekin, EKEk bere parte hartze printzipioak eta moduak finkatu ditu.

Horrela, bere Baliabide Zentro misioaren arabera, EKEk haur eta gazteei buruzko sentsibilizazio desmarta batean diren euskal kultura eragileen errepertorio bat sortu du. HAK-ren partaide ezberdinak EKEren gana joaten ahal dira, ikastetxeetan tailerrak proposatzen ahal dituzten kultura sail desberdinen arabera artisten zerrenda bat lortzeko.

Hori dela eta, Kontseilu Nagusia EKEekin harremanetan sartu da. Alabaina, bere HAK eskemaren berrikusketaren kariatara, Hezkuntza Nazionalaren eta Kontseilu Nagusiaren dispositiboetan sar daitezkeen kultura partaideen zerrenda eguneratu du. EKEk euskal kultura eragileen onarpena eta HAK-ko partaideekilako harremanak erraztu ditu (Hezkuntza Nazionala, kultura operadoreak, lurralde kolektibitateak...).

Bestalde, aholkuak eskatzen dizkiguten partaideei kalitatezko eskaintza bat bermatzeko asmoz, IDBren partaidetzarekin EKEk euskal dantzaren inguruko modulo batzuen eraikuntzan parte hartu du. Lehen esperimentazio horri esker, bost ibilbide antolatutakoak izan dira 2014-2015 ikasturtean zehar.

### **1.2.2. Eskolaz kanpoko HAK-a**

2014ko irailan eskola denboraren erreformaren aplikazioa denetara zabaltzarekin batera, elkargoek eskolaz kanpoko jarduera denboraren ardura eskuratu dute. Ikasleei, jarduera andana bat eskaintzen ahal dizkiete, horien artean aktibitate artistiko eta kulturalak.

Herriek edota herri elkargoek lurralde mailako heziketa proiektuak ontzearekin, eskolaldi inguruko aktibitateen eta berdin eskolaz kanpoko eskaintza berri bat garatzea errazagoa bilakatzen da. EKEk bere lurraldeko eragileen ezagutza eskaini du eragileen eta elkargoen arteko kultura bitartekaritzaren errazteko.

### **1.2.3 HAK-ren eragileak formatu**

- Irakasleak : formakuntza euskal kulturari : Canopé, Ikas eta Hezkuntza Nazionalako Zerbitzuetako Departamenduko Zuzendaritzaren partaidetzarekin antolatutako eguna ;
- Erabakitzaile politikoak : formakuntza euskal kulturari eta lurralde mailako bere garapenaren erronkei (gizarte-kohesioa, dinamika ekonomikoa, kultura aberastasuna etab).

## **1.3 | Herri elkargoak lagundu beren politika kulturalen finkatzen**

### **1.3.1. Olhaberri Bankako meategien interpretazio zentroaren segipena**

2009an, Bankako herria eta Garazi-Baigorriko herri elkargoak hasi dira herriko kobre eta burdin olen historia konda lezaken interpretazio zentro bat eraiki nahian. Euskal kultur erakundeak hurbiletik segitu ditu zentro honen sortzeko pasatu behar izan diren urrats gehienak. Besteak beste barnean irakur daitezkeen testuen moldatzen eta euskaratzen lagundu du. Olhaberri izeneko zentro hau 2014ko uztailaren 12an estrenatua izan da.

## 1.4 | Irakurketa publikoaren garatzea kultura publikoetan

### Helburua

2014 urtean, EKEren ekintza Irakurketa Publikoaren alorrean bi ardatzen bidez garatu da: Bilketa egitasmoaren baitan abiatu lanaren eta BDPArekin (Bibliothèque Départementale des Pyrénées Atlantiques delakoa) partaidetzan antolatutako egun profesionalen segipena.

### Bilketa

Baionako Hiriak garatua, Bilketa atari bat da zerrendatuak izan diren euskal funtsak biltzen dituen. Hortan sartzen dira liburu, aldizkari, eskuizkribu, artxibo, argazki eta ikonografia guzira, soinudun eta ikusentzunezko dokumentuak, Euskal Herriari lotuak edo euskaraz direnak. Atari honek egitura ezberdinetan diren funtsen bilaketa bat eskaintzen du (liburutegi eta mediatekak, liburutegi unibertsitarioak, dokumentazio zentroak, eta beste funts pribatuak).

BILKETAK liburutegi numeriko bat aurkezten du, kolekzioen aberastasun handia isladatzen duena eta publiko zabalari eskuragarri bilakarazi nahi duena.

Baionako Hiriak eta Mediatekak ondareari lotua den egitasmo hori eraman dute « Contrat Plan Etat-Région (CPER) 2007-2013 » delakoaren barnean. Hainbat ekintza eramanak izan dira: dokumentuen tratamendua, numerizazio kanpainak, hedapen tresna baten garapena baita liburutegien arteko sare baten eraikitzea. Sare horrek praktiken eta lan tresnen partekatze bat eskaintzen du, eta osagarritasunean pentsatutako euskal funtsen balorizazio bat ere proposatzen du.

Euskal kultur erakundea, 2010 urtetik egitasmo honi lotua da, bere azken fasean lan egiteko gisan: publiko zabalari zuzendutako mediazio ekintzak proposatzeko eta profesionalen sareari euskal kulturari lotuak diren formakuntzak antolatzeko. Horrez gain baliabide atarian ere bere ekarpenak egin ditu.

Bilketa atarian argitan eman duen lehen gaia: « Xiberutar Pastoral ».

Pastoralei zuzendutako erakusketa birtualaren aberastea:

- EKEk “Eleketa”, etnografiko eta ikusentzunezko programatik egindako 8 pasarte proposatu dizkio Bilketaren arduradunari erakusketa birtualean sartuak ahal izateko. Lekukotasun hauetan, batek emazteen pastoralak bereziki aipatzen du eta besteek, Pastoralaren aldaketa eta gaurko gogoetak aipatzen dituzte.
- EKEk arartekolaritza lan bat eraman du Bilketa programaren arduraduna den Marie Andrée Ouret eta Departamenduko Artxibategiaren artean (azken hori delarik obragina) lekukotasun soinudunak sartu ahal izateko.

### Bilketa - Mediazioa:

Baionako Mediatekan iragaiten den « IRAKUR ! Lire en basque » zikloaren kariatara, lehen mediazio ekintza bat antolatua izan da publiko zabalari zuzendua (EKE, Baionako Mediateka eta Bilketak antolaturik). 2014a urte berezia izan da 3 Pastoralak sortuak izan bait dira : « Petti Buhame » Pier Pol Berzaitz-ek idatzia eta Garindainen emana, « Alienor d’Aquitaine trajeria » Jean Michel Bedaxagar-ek idatzia eta Maulen eskainia eta azkenik, « Gerezien Denbora » Itxaro Bordak idatzitako hiri Pastoralak eta Ezkandrai taldeak emanik. Topaketa-solasaldi bat antolatua izan da urriaren 10ean, 3 idazlerekin. Haien ikuspuntu ezberdinen partekatzeko aukera ederra izan da eta biziki aberatsa. Idazlea, kazetaria eta Maiatz argitaletxearen arduraduna den Lucien Etxezaharretak topaketa animatu zuen. Ekitaldia euskaraz iragan zen bat bateko itzulpenarekin.

### Bilketa - Formakuntza :



Bilketa egitasmoaren dimensioetarik bat liburuzainen formakuntza euskal kulturari da. Hala nola, formakuntza egun labur batzuen bidez, euskal kulturaren ezagutza hobeari bat eskaintzea da helburua.

#### Xiberuako Pastoral – 2014ko urriaren 9a, Baionan :

« IRAKUR ! Lire en basque » zikloa eta bereziki barnean antolatzen dugun egun profesionalaren kariatara, Pastoral hobeto ezagutzeko parada eskaini zaiei sare profesionaleko eragileei: Jean Louis Davant-ek, Pastoral idazle eta adituak Pastoralaren ezaugarri nagusiak aurkeztu zituen. Bigarren denbora batean, Marie Andrée Ouret BILKETA proiektuaren arduradunak Pastoralari dedikatua den erakusketa birtuala aurkeztu die. Eguna bukatzeko, gogoeta momentu bat atxikia izan zen profesionalen formakuntza beharrak aztertzeko. Horretarik hainbat gai atera dira 2014 eta 2015ean landuak izanen direnak (euskal musika, zinema, prentsa, literatura, ...).

#### Euskal Musikologia – abenduaren 11n, Biarritzeko mediatekaren entzun aretoan :

Formakuntza zikloaren bigarren hitzordua baina lehena egun oso bat irauten duena. Hizlaria : Christian Laprerie ren eskutik – Musikaz aberasturiko mintzaldia. Christian Laprerie autorea, musikagilea eta SACEM erakundearen kidea da. "Histoire de la Musique basque" (Atlantica, 2010) liburuaren idazlea da ere.

#### **BDPArekin partaidetzan antolatutako egun profesionalak (« Bibliothèque Départementale des Pyrénées Atlantiques » delakoa, Pirineo Atlantikoetako Departamenduko tresna)**

#### Hego Euskal Herriko egituren bisita

Profesionalei zuzenduak diren egun hauek 2011n abiarazi genituen Durangoko Azokaren bisita batekin (liburuzainei, dokumentazio zentroko langileei zuzendua). 2014ko, BDPA eta EKEn xedea izan da Hegoaldeko egitura publikoen bisitak antolatzea, profesionalek lan tresnak eta metodoak elkar truka ditzaten (adb. Nola egin hizkuntza ezberdinetako funtsak antolatzeko...)....

2014ko martxoaren 6an, Donostian antolatua izan zen egun bat eta bi egitura bisitatuak izan dira : Donostiako Udal liburutegien sareko Haur Liburutegia eta Gipuzkoako Diputazioaren tresna den Koldo Mitxelena kulturuneko mediateka. Egitura bakoitzean bertako arduradun batek bisita gidatu bat proposatu zuen zerbitzu guziaz ongi ezagutzeko parada emanez.

#### Argitaletxe eta disketeekin topaketa Baionako Mediatekan « IRAKUR ! Lire en Basque » zikloaren egun profesionalaren kariatara.

Urriaren 9an, egun profesionalen honen 3. edizioa iragan zen. Aukera da euskal literatura arloan ari diren argitaletxeentzat lurraldeko liburuzainei heien egitura eta katalogoak aurkezteko (baita berritasunak ere). Aurten disketeei zabaldu zaie gomita, eskaintza musikalaren aurkezpen baten ukaiteko. hauek dira parte hartu zuten egiturak : Astobelarra – Le Grand Chardon (liburuak), Ikas Pedagogia zerbitzua (liburu, diska, material pedagogikoa), Gatuzain (liburuak), Maiatz (liburuak), Elkar (liburuak, diskak, DVD), ZTK (liburuak, diskak, DVD) eta Agorila (diskak).

## **1.5 | Aholkularitza artistikoaren ekartzea tokiko kolektibitate eta kultura egiturei**

Euskal kultur erakundea baliabide iturri eta aholkulari artistikoa da, euskal kultura hedatu nahi duten kolektibitate eta egiturentzat, oroz gainera ikusgarrigintza, literatura, ondarea edo arte bisualen alorretan.

2014an, hainbat tokitan parte hartu du, hala nola besteak beste Baiona, Angelu, Miarritze, Donibane Lohizune, Hendaia, Bardoze, Donibane Garazi, Irisarri, Getxo, Donostia, Zarautz, Bilbo, Cenon edota Périgueux hirietako kultura egiturekin.

## **1.6 | AMO misioak segitu, Pirinio-Atlantikoetako departamenduarentzat**

Euskal kultur erakundearen eta Departamenduaren arteko hitzarmen bereziari jarraikiz, EKE-ko langileak eta Departamenduko ordezkariak hainbat aldiz bildu dira gai ezberdinen inguruan, hala nola hezkuntza artistiko eta kulturalaren, ikusgarrigintzaren, ondarearen eta euskal zinemaren inguruan. Bideratuak izan diren ekimenak garatuak dira dokumentu honen kapitulu ezberdinetan.

Horretaz gain, EKE departamenduarentzat aholkularia izan da, Bertsularien Lagunak elkartearen « labelizatua » izan dadin, baliabide iturri bezala, bertsu eskolen egitasmoak sartzeko nola Departamenduaren HAK (Hezkuntza artistiko eta kulturala) eskeman, hala erakaskuntza artistikoarenean.

## 2 | Egitasmo berriak eta egituratuak bultzatu

### 2.1 | Ondare inmateriala : EKEren kultura publikoaren oinarria

Euskal kultur erakundea gogoeta batean sartu da ondare kulturala inmaterialari buruz. Gai honek gure lurraldean duen erranahia eta oihartzuna zilatzeke, Terexa Lekumberriren inguruan bildu den lantaldeak ondarea eta sorkuntza garaikidearen arteko lotura hurbilagotik aztertzea erabaki du.

Helburu honekin, 2014an sortu diren bost emanaldi artistiko hurbilagotik segitu ditu, lotura hori nola gauzatzen den ulertu nahian. Sorkuntza horiek ziren “0101” Elirale eta Lagunarte konpainien eskutik, “Neokotilun” Bardozoko KSI-k emanik, “Urruñako Zintzarrotsak” Berttolik antolaturik, “Zelda” Zarena Zarelako konpainiak dantzaturik eta “Barbau Hamalau” Hebentik-ek eskainirik.

Segipen honetan, Denis Laborde etnologoaren laguntza ukan du lantaldeak eta lehen emaitzen berri emateko, arratsalde bat antolatua izan da 2015eko urtarrilaren 24an Senpereko Larreko gelan. Gai honetaz interesatuak ziren hogoita hamar bat pertsona hurbildu dira hor. Arratsaldea bost sorkuntza horien eramaileen ekarpenarekin hasi da eta talde lan batekin segitu. Eztatbaida aberatsak atera dira hor eta segida baten ematea erabaki da 2015eko ekainaren 26-27ko asteburuan.

### 2.2 | Euskal dantza egitasmoaren jarraipena

#### 2.2.1. Euskal dantza eskoletan : sentsibilizazio ibilbidea

Euskal kulturaren transmititzea eta integratzea eskola denboran, hona Euskal kultur erakundearen helburu nagusienetakoa. 2014/2015 eskola urteentzat, euskal dantza lehenetsia izan da, kolegioko haurrei begira (6.ekoak). Hainbat partaide bildu ditu EKE-k mahai inguruan : IDB euskal dantza federazioa, Pirinio-Atlantikoetako departamendua, DRAC eskualdeko zuzendaritza, Inspekzio akademikoa, Hezkuntza Nazionala, Canopée bai eta Ikas zentro pedagogikoak, besteak beste.

Lan bilkura andana baten ondotik, hiru ibilbide finkatuak izan dira : ihauteriak, maskaradak eta euskal dantzaren eszenografia.

2014/2015 ikasturtearentzat, 120 bat haurrek parte hartu dute esperientzia horretan.

#### Euskal dantza kolegioan: egituraketa baten zirriborroa

- **Irakasgaiak:** frantsesa, euskara, historia, kirola, arte plastikoak, musika heziketa, arteen historia: hainbat irakasgai zeinentzat euskal dantza segida konkretua den, eta zeini esker ikasgaien arteko lana erraza den.
- **Publikoa:** seigarrenak

- **Pedagogia helburuak “Ibilbideen” arabera:**
- ✓ **Dimentsio kulturala, historikoa, literarioa...:**
  - Euskal Herriko erritu nagusien ezagutza edo/eta sakontzea,
  - Euskal Herriko ondare koreografikoaren ezagutza,
  - Dantzaren leku berezia Euskal Herriko kultura ondarean,
  - Dantzaren harremana beste arte irakasgaiekin: musika, kantua, antzerkia...
- ✓ **Dimentsio artistikoa:**
  - Dantza ikusgarrien ezagutza: “ikuslearen eskola”,  
Esperimentazioa: dantzaren lehen irakaspenak (errepertorioaren oinarriak; musikalitatea eta gorputz trebetasuna, dantzatu mugimenduaren bitartez...),
  - Sortze prozesu baten deskubritzea ikusle edo/eta eragile gisa.
- ✓ **Dimentsio linguistikoa:**
  - “Ibilbideak” frantsesez edo euskaraz eginen dira. “Ibilbide” elebidunak egitea ere posible liteke.

#### ***“Ihauteriak” ibilbidea***

- **Begiratu:** tradiziozko ihauteri bat edo batzuen ikustera joan: Lantz, Altsasu, Uztaritze, Eibar...
- **Egin:** ihauteri dantzen lehen irakaspenak euskal dantza tailer baten bidez: zenbait oreneko modulua, aditu batekin. Beste tailerrak: jantziak, maskak & osagarriak, musika. Forma eszenikotxo bat egitea ere posible liteke.
- **Aztertu:** ihauteriaren mito unibertuala ulertu bere euskal formen bidez (lekukoekin egon, erakusketa, bilketa...)

#### ***“Zuberotar maskarada, ihauteri berezia” ibilbidea,***

- **Begiratu:** zuberotar maskarada baten ikustera joan.
- **Egin:** dantza “irringarrien” lehen irakaspena, euskal dantza tailer baten bidez: zenbait oreneko modulua, aditu batekin. Beste tailerrak: jantziak, maskak & osagarriak, musika. Forma eszenikotxo bat egitea ere posible liteke.
- **Aztertu:** zuberotar maskaradaren osagai koreografiko eta satirikoak ulertu eta bertan datzan ihauteri erritua deszifratu (lekukoekin egon, erakusketa, bilketa...).

#### ***“Euskal dantza eszenaratua” ibilbidea***

- **Begiratu:** euskal dantza ikusgarri baten ikustera joan.
- **Egin:** euskal dantzaren estetika zenbaiten lehen irakaspenak: zenbait oreneko modulua, aditu batekin. Beste tailerrak: jantziak, maskak & osagarriak, musika. Forma eszenikotxo bat egitea ere posible liteke.
- **Aztertu:** XX. mendean euskal dantzan izan den aldaketa ulertu (lekukoekin egon, erakusketa, bilketa...).
- **Euskal dantza kolegioan: metodologia**

**Gainean aurkeztu "Ibilbideak" adibideak baizik ez dira,** hausnarketa bat abiarazteko gisan. "Ibilbide" bakoitza elkarrekin eraikiko da, bilduz:

- interesatua den irakaslea edo irakasle taldea,
- Euskal kultur erakundeko kultura bitartekaritza zerbitzua (Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin).

"Ibilbide" bakoitza gauzatuko da ondoko hauen proposamenen bidez:

- Euskal kultur erakundea: ikusgarriak, errituak, erakusketak, hizlariak,
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarra: euskal dantza tailerrak eramaten ahalko lituzketen dantzariak

### **Euskal kultur erakundearen arartekolaritza**

Euskal kultur erakundeak parte hartu du proiektu horretan hiru alorretan :

- **Baliabide gunea:** aholkularitza eta formakuntzen asmatzea euskal kulturari dagokionez, kultura eragileen bilaketa IDBrekin elkarlanean, irakasleen ezagutzak euskal kulturaren inguruko elementuei dagokienez, HAK ibilbidearekin lotuak diren ikusgarriak proposatu (besteak beste, EKEren webgunearen bitartez).
- **Asmatu eduki** berritzaile eta kulturalak, kultura eragile, erakunde desberdin, irakasle eta pedagogia aholkulariekin batean: euskarri numerikoak, multimedia erakusketak, webografiak, proiektuen gauzatzeko behar diren parte hartze artistikoen sortzea.
- **Laguntza** HAK ekintzarentzat: proiektuen gauzatzeko eta segimenduarentzat laguntza (salbu hunkituak diren lurraldeetan jadanik eskuduntzak badira –adb: Herriko Etxeetako eta herri elkargoetako Kultura zerbitzuetan).

### **2.2.2. Euskal dantza eta IDB federazioarentzat egitasmo berria**

2014an, Euskal kultur erakundeak hurbiletik lan egin du IDB federazioarekin, geroari begira egitasmo berri baten eraikitzeke, nola euskal dantzarentzat, hala Iparraldeko IDB federazioarentzat.

Bere erantzukizunez kontziente izanik, Euskal kultur erakundea prest agertu da Iparraldeko Dantzarien Biltzarra elkarrearen ekintzen berreraikitzeke, geroaren segurtatzeko gisan.

Ekimen hau oinarritzen da 2010ean EKEk IDBrekin hitzarturik hasi prozesuan. Besteak beste Claire Rousieren ikerketan (2011) bermatzen da. Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak antolatu 2014ko apirilaren 4 eta 25eko bilkuretako gogoetak kontuan hartzen ditu, baita ere Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren gomendioak euskal dantzari buruz Ipar Euskal Herriko 2014/2020 Lurralde Kontratuarentzat. Bestalde, kontutan hartua da ere Maurice Ravel Kontserbatorioak daukan nahikeria euskal dantza eta ohizko musika, bere programa orokorrean sartzeko.

Iritzi bikoitza kontutan hartu behar du egitasmoak : lehenik, euskal dantza elkarreana eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarra diruztatzen duten frantses Estatua eta tokiko erakunde ezberdinena.

Hemen aurkeztu diren norabideak alde artistikoari eta alde soziokulturalari buruzkoak dira ; euskal dantzaren berezko bi errealitate, bata bestea aberasten dutenak.

2014ko irailaren 19an, IDBko Biltzar Nagusiak onartu duen egitasmo honen ardatz nagusiak dira :

- Elkarrekin behar dituzten kurtsoei egokitu dispositibo baten bideratzea ;
- Elkarrekin arteko sinergia handiagotzea ;
- Elkarrekin ekoiztu ikusgarri (pratika amaturrak bereziki) sostengatzea ;
- Maurice Ravel Kontserbatorioarekin partaidetza indartzea ;
- "Ekoizpen koreografikoaren" Polo baten sortzea ;
- Herri Elkargoek bultzatu proiektuen kontuan hartzea (bereziki Xiberoko eta Errobi herri-elkargoak).

## **Maurice Ravel Kontserbatorioarekin partaidetza**

Joan den ikasturtean, Maurice Ravel Kontserbatorioak, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak eta Euskal kultur erakundeak lehen partaidetza hitzarmen bat izenpetu zuten Hendaian "euskal dantza" ikasgai osagarria gauzatzeko dantza klasikoko 1. zikloko ikasleentzat. Heldu den ikasturteko, dantza klasikoko 2. zikloan ere euskal dantza sartuko da.

Dantza klasikoko ikasleak euskal dantzari sentsibilizatzea ez da lehentasuna izaten ahal Iparraldeko Dantzarien Biltzararentzat. Baina beste erronka batzuentzat bai, zeinentzat Maurice Ravel Kontserbatorioaren sostengua erabakigarria den :

- Formatzaileen formakuntza euskal dantzarentzat ;
- Euskal dantza ibilbide baten gauzatzea baita ere gaitasunen erreferentzia sistema bat ikasle dantzariak maila bakoitzean lortu beharko dituzten helburuak finkatuko lituzkeenak,
- biziki maila oneko euskal dantzarien formakuntza.

2014ko ekainaren 30ean eta uztailaren 22an, bi lan bilkuretan proiektu horiek guztiak aipatuak izan dira. Maurice Ravel Kontserbatorioko zuzendariak bere baimena eman du bere langileak dispositibo horretan sar daitezen, Iparraldeko Dantzarien Biltzararen baitan sortzekoa litekeen pedagogia taldearekin hitzarturik.

Euskal kultur erakundeak sostengatu esperimentazio gisa, euskal dantzaren praktikari egokitua den dantza klasiko kurtso bat plantan ezartzea erabaki da 2014/2015eko ikasturteetik goiti.

Klaseak asteazkenetan iragan dira :

- 17:00etatik 18:30etara: 9 eta 12 urte arteko euskal dantzarentzat
- 18:30etik 20:00etara: 9 eta 16 urte arteko euskal dantzarentzat.

Azpimarratzekoa da ere Maurice Ravel Kontserbatorioko zuzendariak proposatzen duela:

- noizbehinka euskal dantzako *master class* zenbait errezibitzea,
- Ohiko Musika Departamenduak IDB sostenga dezan bere proiektu desberdinetan. Puntu zehatz horrentzat, aipatu da Kontserbatorioko irakasleei dantzatzeko musikak harmonizaraztea, Kontserbatorioko ikasle handiek interpretatuko lituzketenak, eta bertako soinu ingeniariak grabatuko lituzketenak. Grabaketa horiek euskal dantza elkarrekin urririk uzten ahal lirateke libreki telekargatzen uzten duen webgune baten bidez.

Esperimentazioa positiboa balitz, dispositibo zenbait Pirinio Atlantikoetako musika eta dantza eskolei proposatzen ahalko lirateke sare koherente bat osatzeko euskal dantza elkarrekin kartografiari begira, beraz Maurice Ravel Kontserbatorioarekin bidean den esperimentazioa are garrantzitsuagoa da.

## 2.3 | Euskal zinemaren banaketa abian Iparraldean

Azken urteetan, eskaera handia izanik ere, Ipar Euskal Herrian euskal zinearen hedapena emanaldi bakarren edo sakabanatuen bidez egin da. Hutsune horrek ez ditu ez egileak, ez banatzaileak, ez eta Euskal Herriko zinezaleak asetzen.

Aterabide bat aurkitu nahiz, Baionako Atalante zinegela eta Euskal kultur erakundea elkartu dira, eskubideak erdiesteko eta bi filmen banaketaren esperimentazioa gauzatzeko gure lurraldean. Abiapuntua azkeneko Donostiako Zinemaldian saristatua izan den Aitor eta Amaia Merino-**ren Asier eta biok** filma izan da, Bidasoaz bestaldean jadanik milaka ikusle bildu dituen. Filma 2014ko *Rencontres sur les Docks* topaketetan aurkeztua izan da. Gela mukurru bete zen eta jende anitz sartzerik gabe gelditu zen.

Berriz aurkeztua izan da Donibane Garaziko Le Vauban zinegelan apirilaren 28an eta Donibane Lohizuneko Le Sélect aretoan apirilaren 29an. Egilea bera bi gaualdietan hor izan da, eta emanalditik lekora, berekin mintzatzeko parada izan da.

Ondotik filma Ipar Euskal Herriko hainbat zinegelatan programatua izan da maiatzaren 8tik goiti, (Hendaia, Baiona, Donibane Lohizune, Maule, Donapaleu, Kanbo, Biarritz, Hazparne, Donibane Garazi, Salise eta Parise) baita ere hiru zine festibaletan (Baionako « Rencontres sur les docks », Douarnenez zine festibala eta Parisen ospatu « Attac » festibala).

Orotara 47 emanaldi antolatu dira 2173 ikusle bilduz, 11 zinegeletan, 46 ikusle proiektioka.

Banatu den bigarren filma Elsa Oljar Inès “**Dans leur jeunesse il y a du passé**” film ederra izan da, Xiberuko gazteria medio. 2014ko otsailaren 7an aurkeztu da Mauleko zinegelan, martxoaren 27an Baionako « Rencontres sur les docks » festibalean eta ondotik azaroan “Mois du do” ekitaldiaren kari Akitania mailan, 159 ikusle bildurik 10 emanalditan, film egilearen presentziarekin aldi bakotx.

Euskal kultur erakundearen sostenguarekin eta ipar Euskal Herriko zinegela gehien parte hartzearekin Atalante zinegelak antolatu Aitor Merino-ren “Asier ETA biok” filmaren banaketa esperimentazio arrakastatsuak erakutsi du lurralde honetako ikusleek interesa badutela euskal zinearentzat. Halere, hedapenak oztopoak topatzen ditu, bai eta hainbat galdera sortarazten ere. Gure xedea alternatiba batzu aurkitzea da, gero eta aberatsagoa den filmografia horren ustiatzeko asmoz.

Egoera honi erantzuteko eta euskal zinearen hedapenaren egituratzea hobeki laguntzeko, EKE-k ikerketa misio bat galdetu dio zinemaren hedapen eta ekoizpen sailetan berezitua den Caline Oscaby andereari. Lan hori, EKE-k euskal kultura sostengatzeko daukan misioaren barnean kokatzen da, bai eta bere ingenieritza eta egitismo egituratzaileendako obragintza misioen karietara ere. Emaizak 2014ko urriaren 17an ezagutzera emanak izan dira Hendaia Film Festibalaren karietara. Ondotik, trukaketa une bat izan da lurraldeko zinema-jabeen, departamenduko ordezkarien eta EKE-ko ordezkarien artean. Kalitatezko idazlan horrek aitzina segitzea bultzatzen gaitu baina derrigorrezko baldintza batekin : Iparraldeko zine arduradunek euskal zinearen aldeko sare egonkor bat osa dezaten banaketa modelo alternatibo hori iraun dadin.

## 2.4 | Gazte sorkuntzaren sostengatzea

### « Irudimena » : testu eta irudi sormen lehiaketa

Euskal kultur erakundeak eta Bilboko Azkue Fundazioak sareko « Irudimena » sormen lehiaketa antolatu dute hirugarren aldikotz 2014ko martxoaren 17tik maiatzaren 16ra. Lehiaketa honenhelburua euskal kulturaren inguruko sormen literarioa, grafikoa eta musikala bultzatzea zen gazteen artean. Soinu batean oinarrituz (gaian, estetikan...) parte hartzaileek testu bat, soinu berri bat edo irudi bat asmatu behar zuten. 46 egileek ekoiztutako 70 obra eskuratu dituzte antolatzaileek. Sariak ekitaldi ofizial baten kariatara emanak izan dira Bilbon, ekainaren 7an. Emaizta eta sorkuntza guziak sarean dira: [www.irudimena.com](http://www.irudimena.com).

### Odei Barroso Donibane-Lohizuneko Baratze botanikoan

Euskal kultur erakundeak partaidetza bat darama, hanbat urte hauetan, Donibane-Lohizuneko Paul Jovet baratze botanikoaren adixkideekin. 2013ko urtarrila arte baratzea kudeatzen zuen elkarte honek (kudeaketa hori beregain hartu du geroztik Donibane-Lohizuneko Herriko-Etxeak ) segitzen du baratzea animatzen, bai paisaiak, bai alde zientifikoa baloratzuz. Partaidetza hori dela eta, Euskal kultur erakundeak eta baratze botanikoaren lagunek artista egonaldi bat antolatu dute, baratzean berean, 2013ko urritik 2014ko irailera. Bertsularitza ohoretan emana denez, Odei Barroso hor egon da, sasoin bakoitzak eskaintzen dituen dremendeneko aldaketak hurbiletik segituz. Hiru egonaldi labur egin ditu sasoin bakoitzean. Noizean behin (bi aldiz bederen) berekin ekarri ditu Donibane-Lohizuneko bertsu eskolako bertsulari gazteak, hauek ere baratzeak sortzen dizkien emozioak elez eta gero paperrez finkatu dituztela. Bai Odei Barrosok, bai ikasle gazte horiek sortu dutena, berek publikoki aurkeztu dute 2014ko irailaren 20an, baratzean zehar antolatu ibilaldi batean. Testo guziak “Baratzeko hitzak” liburuan bilduak eta argitaratuak izan dira 2014ko abenduan.

### “Lloba” sorkuntzaren hedapena

Hogei'ta deialdiaren sariduna « Lloba » proiektua izan da, musika elektronikoa, bideoa, marrazkia eta koregrafia uztartzen dituen. IBOAT gunean (Bordale), 2014ko uztailaren 13an aurkeztua izan da 250 ikusleen aitzinean.

### Haur antzerkiaren inguruko formakuntza programa

Hezkuntza artistikoa eta kulturala programetaz gain, ikusgarrigintzaren aktoreek gure haurren formakuntza intelektualan eta kulturalan papera handia dute, geroari begira. Haur antzerkia definitzeko, umeak, gazteak eta nerabeak aipatzen ditugu hemen. Publiko berezi honi proposatzen diren sorkuntzak, euskaraz, dimentsio oso garrantzitsua dute, batez ere eskaintza murriztua delarik eta kasu batzuetan animazio baten itxura hartzen dutelarik.



Haur antzerki saileko sorkuntza maila hobetzeko, alor horretako sortzaileei formakuntza programa bat eskaintzeko, Europako beste herietan egiten denetaz baliatuz, urtean zehar lan egin da.

Xede horretara heltzeko, Euskal kultur erakundeak segipen talde bat osatu du honako parte hartzaileekin, bakotxa haur antzerkian berezitua : Hego Euskal Herriko Herri Elkargoa, Baxe Nafarroako Herri Elkargoa eta Biarritz Culture elkarteak.

Horrelako egitasmoa borobiltzeko, hego Euskal Herriko partaideak lotu behar dira. Horregatik Donostia Kultura eta Donostia 2016 Fundazioa egiturekin harremanetan segitzen dugu helburu horren lortzeko.

Hiru urteko programa eraiki nahi da 2015-2018 epean, antzezle edo taula zuzendari hautatuen eta segipen taldeko kideen artean ibilbide berezitu bat eraikitzeko.

### **« Hitzaditza », euskarazko diktaketa**

Euskal kultur erakundeak eta AEK federazioak, bederatzigarren « Hitzaditza » diktaketa antolatu dute, 2014ko apirilaren 12an, Baionako IUTn.

Hiru maila proposatuak izan dira : 13 eta 17 urte arteko gazteak, euskara ikasten duten helduak eta euskaldun trebeak. Aurten diktatuak izan diren testuak EKEk urtean zehar antolatutako literatura lehiaketatik ( Irudimena) hartuak izan dira baita berriki atera liburuetatik.

- « Biribilgune » Katixa Dolhare-Çaldumbide-k idatzia (13-17 urtekoen saila)
- « Antzerkirik hunkigarriena » Daniel Landart-ek idatzia (euskara ikasten dutenen saila)
- « Ganen da » Bea Sallaberry Larre-k idatzia (euskaldun trebeen saila)

Irakurleak izan dira : Peio Berhocoirigoin, Maite Deliaart eta Kattalin Sallaberry

Hitzaditza.com blogak ere ariketa batzu proposatu ditu : grabaketak eta ariketak entrenatzeko...

Irabazleek, sari ederrak irabazi dituzte (e-book-ak, ikusgarrien/festibalendako sarteak)

Aurten ere Euskal Irratiekin partaidetzak segitu du: kronika bereziak proposatuak izan dira asteen zehar baita testu irakurketak entrenatzeko ariketa gisa (diktaketa moduan).

## 3 | Kultura eragileak eta elkarteak lagundu

### 3.1 | Ahozko ondarea bildu eta baloratu

#### 3.1.1. Eleketa programa

##### Ahozko ondarea bildu

2007-2013ko Euskal Herriko Lurralde Kontratua burutua, eta ondokoa oraindik ez plantan izanik ere, Eleketa ahozko bilketak segitu du ber kuadroan, Departamenduaren obragintzapean, EKE beti obralari.

Orotara 28 inkesta (38:11:48 ordu), hots 36 (22 gizon eta 14 emazte, horietan 3 frantsesez) lekuko filmatu dira, gai hauek barnatuz:

- Euskal dantza: 16 inkesta (18 lekuko: 13 gizon eta 5 emazte),
- Zapatagintza Xiberuan: 3 inkesta (5 lekuko).

Bestalde, gai berezi batzuk jorratu dira:

- Comète sarea 1939-1945 gerla garaian,
- Olentzero ohitura (Laurent eta Mirentxu Apesteguy),
- Jakitate berezi sailan, makila egilea den Charles Bergara.

Eleketa programa EKE-ren misioei lotzeko eta bereziki ondare inmaterialari buruzko gogoetari (ikus 2.1), 2014an dantza alorrean bildu zenbait lekukotasun musikari eta koregrafo garaikide batzuenak dira. Helburua zen jakitea eta ikertzea gaurko artistak nola jabetzen diren ondareaz.

##### Ahozko ondarea baloratu

Eleketa programaren aberastasun ikaragarria baloratzeko, Euskal kultur erakundeak eta Baionako euskal museoak “Eleketa museoan” programa martxan eman dute. Begi bistakoa baita lekukotasun batzuek bizia eta zentzua ematen ahal dietela museoan agertzen diren hainbat objektuei, hitzarmen bat izenpetua izan da EKE eta euskal museoaren artean borna prototipo baten sortzeko. Prototipo honen bidez, bizpahiru lekukotasun zati entzuten ahalko dira *in situ* eta ongi neurtzen ahalko da dispositiboia egokia denez eta zabal daitekenez museoaren beste toki batzuetan.

### 3.1.2. Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen balorizazioa

2012az geroztik, Euskal kultur erakundeak balorizatzen ditu Departamenduak bere begiratze eta baloratze programa baitan numerizatzen dituen ahozko artxiboak. Hots, inbentario edo datubase numerikoak sortzea da helburu, fondo hauek ikusgai izan daitezzen Paueko eta Baionako artxibategietan eta kontsultagarri <http://earchives.le64.fr/gunean>.

2014an, EKEk segitu du sail hau, Philippe Oyhamburren fondoaren tratamenduarekin.

## 3.2 | Euskal kulturari hezi

### 3.2.1 Kilt egitasmoa

Kilt egitasmoak (**Knowledge Identity Language Tools – Kultura tresnak** beharretan diren pertsonetikiko **harremana errazteko**) bost herrialde -Eslovakia, Italia, Katalunia, Eskozia, Ipar Euskal Herria- eta 8 partaide bateratzen ditu (horietan EKE eta AFMR Etxarri).

Osasun eta medikuntza alorreko eragile frankoren behar batetik abiatu zen, hau da, harreman ahal bezain orekatua eta zintzoa sortzea profesionalaren eta lagundua den pertsonaren artean. Horretarako, pertsona honen izaera guzira kontutan hartzea eta errespetatzea funtsezkoa da, jakinez kultura faktoreak besteak beste (historia, gizarte ingurumena, bizilekua, bizi-usaiak, sinesmenak, hizkuntza) arreta handia merezi duela.

Ahalmen honen garatzeko, **KILT** egitasmoak formakuntza moduluen eta kit pedagogiko berezien ekoiztea, probatzea eta hedatzea erabaki du, osasun eta gizarte arloko langilek, sortuko duten harreman bakoitzean, bestearen kultura eta hizkuntza berezitasuna integra dezaten.

Egitasmoa 2013ko urriaren 1ean hasi zen 24 hilabetez irauteko. “Leonardo Berrikuntza Transferentzia” europar programan sartzen da eta bere kudeaketa orokorrak ondoko antolaketa-eskema segitzen du :

- **Tresna generikoen produkzio fasean** (2013ko abendua- 2014ko uztaila), formatzaile, pedagogo eta profesionalen 5 topaketen bitartez probatzeko tresnak ekoiztu dira.
- **Tresna baliagarrien ekoizpen eta probatze fasean** (2014ko iraila- 2015eko uztaila), aitzinetik ekoiztu tresna generikoak egokitzen eta probatzen dira bost esperimendazio-lurraldeetan eta aitzinetik begistatu publiko batekin.
- Proiektuaren denbora osoan irauten duen ardatz berezi bat **komunikazioari** eskainia da eta emaitzen **barreiatzeari**. KILT egitasmoari irudi bat eman zaio logo baten bidez, barne-komunikazioa erraztu da web plataforma baten bitartez. Urrats handiagoak egingen dira 2015ean zehar.
- Zeharkako ikuspegi batekin, *in itinere* “**ebaluazioa**” egiten ari da bai partaidetzaren funtzionamenduari buruz, bai emaitzei eta igurikatzen zenari buruz. Ebaluazio honetarako, KILT-eko partaideek adituei dei egin dute, eskaintza publiko baten bidez.
- Azkenik, proiektu osoaren eta partaidetzaren **koordinazioa**, baita ere **administrazio eta diru kudeaketa** guzira eramaten ditu Etxarriko AFMRak.

### 3.2.2. Irakurketa Publikoa : mediateketan ekitaldiak

#### ➔ Baionako Mediateka – « Irakur ! Lire en basque »

2012 urteaz geroztik, EKE, Baionako Mediatekan urrian zehar iragaten den ekitaldi honen partaidea da. Euskarazko irakurketari dedikatua den denboraldi horrentzat aholku artistikoak ekarri ditu aurten ere. Horrez gain, Bilketa egitasmoaren barnean 2 hitzordu proposatuak izan dira (mediazioa eta formakuntza, ikus 1-4 helburua).

#### ➔ Biarritzeko Mediateka

Partaidetza hori duela urte andana bat abiatua izan da eta 2012 urteaz geroztik hitzarmen baten bidez ofizializatu. Programazioaren eraikitzea partaide ezberdinak biltzen dituen lan talde baten bidez egiten da: Mediatekaren Euskara eta Gazte zerbitzuak, Eusko Ikaskuntza, Biarritzeko Hiriaren Euskara Bulegoa, AEK, Irakurketa Kluba. Urte erditsuan zehar, Euskal Funtsen zerbitzuak bere aurrekonduaren apaltze bat bizi izan du (beste zerbitzu batzu bezela, haustenkundeen testuingurua delaeta). Programazioa ttikitua izan da horren ondorioz.

- Otsailaren 22a, larunbata : Eñaut Etxamendirekin idazle topaketa « Kantu eta Olerkiak » (Maiatz 2013) liburuaren inguruan. Lucien Etxezaharreta-k animaturiko topaketa.
- Martxoaren 7tik 29ra : SOINUENEA erakusketa – « Musika tresnak Euskal herri musikan » Juan Mari Beltran Argiñena-ren eskutik, Oiartzuneko Soinuenea museoaren kolezioa.

Erakusketaren ondoan : martxoaren 7a, ostirala : Eusko Ikaskuntzaren beken sari banaketak eta SOINUENEA erakusketaren estreinaldia Juan Mari Beltran-en bisita gidatuarekin. Martxoaren 13a , ostegunetik : « Euskal Musikak zuzenean » kontzertua. Juan Mari Beltran-ek, euskal musika tresnen inguruko kontzertu berezi bat proposatuko digu, Ander Barretxea Lasarte eta Andoitz Antzizar Lasa musikariekin batera.

#### ➔ Hendaiko Mediateka

Hendaiko mediatekarekin lehen elkarlana.

- urtarrilaren 28a, asteartea : Adur Larrea margolariarekin topaketa « Okatxu hegal egiten » komikiaren inguruan. (Argia, 2010). Eskoletako ikasleentzat (4 klase CE2tik CM2ra)
- otsailaren 8a, larunbata : « Ipuinaldia », Ixabel Millet-ekin (4-5urteko haurrentzat euskaraz)
- martxoaren 14a, ostirala : Daniel Landart idazlearekin topaketa « Enbataren Zirimolan » (Elkar 2013) liburuaren inguruan.
- apirilaren 5a, larunbata : « Ipuinaldia » - Eleka konpainiaren euskarazko ipuinaldia
- maiatzaren 16a, ostirala : Eñaut Etxamendirekin idazle topaketa Kantu eta Olerkiak (Maiatz 2013). Lucien Etxezaharretak animaturiko topaketa.
- ekainaren 14a, larunbata : « Ipuinaldia » Xan Errotabehererekin
- abenduaren 5etik 31 arte : « Olentzero » erakusketa eta euskarazko ipuinaldia Xan Errotabehere-rekin gai berdinen inguruan, abenduaren 13an.

## 3.3 | Publikoaren eta guneen hedatzea

### 3.3.2. Kultura hedapena Akitanian

#### ▣ Euskal antzerkiaren hedapena Iparraldean – “Hamlet” sorkuntza

Euskal antzerkiaren inguruan publikoa hurbilarazteko azken urteetan zer zailtasunak izaten diren ikusirik, EKEk Le Petit Théâtre de Pain taldeari proposatu egin dio Iparraldeko programatzaile sare bat asmatzea, Artedrama eta Dejabu konpaniarekin atera “Hamlet” azken euskal sorkuntzaren kari.

Helburua : hedapen zirkuitu bat sortu denen artean eta horrela iparraldeko programatzaileen sare bat garatu euskal antzerkiaren alde.

Urtarrilaren 23an, EKEk eta Ptdp konpainiak Larresoroko Harri Xuri gelan lurraldeko programatzaileak gomiatu dituzte “Hamlet” sorkuntzaren hedapena antolatzeko urteko azarotik goiti. Zazpi eragilek erantzun dute eta EKEren laguntzaz baliatu dira antzerki ibilbide hortan sartzeko eta elgarrekin muntatzeko.

Sorkuntza, EKEk diruz lagundurik ere bai, Iparraldeko zazpi herritan ibili da, eragile desberdinak lotuz :

- 2013ko azaroaren 1ean : Harri Xuri - Errobiko Herri elkargoa(Luhuso)
- 2013ko azaroaren 11n : Herriko gela - Ote Lore elkarte (Larresoro)
- 2013ko azaroaren 14an : Mendi Zolan gela - Hendaia Herriko Etxea
- 2013ko azaroaren 15an : Ttattola gela - Eihartzea elkarte (Hazparne)
- 2014ko apirilaren 22an : Colisée gela - Biarritz Culture elkarte (Biarritz)
- 2014ko apirilaren 4an Vauban zinea - Baxe Nafarroako Herri Elkargoa (Donibane Garazi)
- 2014ko apirilaren 12an : Family zinea - Bidarteko Herriko Etxea

“Hamlet” ikusgarriaren itzulua arrakastatsua izan da (1200 ikusle baino gehiago / 10 000 orotara Euskal Herri osoan). Ekintza horrek eragileak lan amankomun batean bildu ditu (komunikazio plan berdina, tarifa amankomunak, barne eztabaida baikorrak)

EKEk lagundurik, Ptdp taldeak harremanak zuzenki lotu ditu ezagun programatzaileekin. Dispositibo horrek 2014/2015 denboraldian segituko du, EKEk bultzaturik eta eramanik.

## ▣ Baionako antzokiarekin

2014ko otsailaren 22an : “**Herritmo**” ikusgarriaren aurkezpena Baionako Eszena Nazionalak eta EKE-k partaidetzan antolatutako. Sorkuntzak Oreka TX taldeko txalapartariak eta musikariak, Kalakan hirukoteko kantariak eta Kukai konpainiako dantzariak bildu ditu. 567 ikusle hurbildu dira jakinez aretoa betetik zegoela hainbat aste lehenago.

2014ko apirilaren 15ean : Ttanttaka konpainiak “**Soinujolearen semea**” antzezlanaren aurkezpena Bernardo Atxagaren obraren oinarritua, Baionako Eszena Nazionalak eta EKE-k partaidetzan antolatutako. Gaualdi oso ederra : 371 ikusle bildu dira kalitate handiko emanaldi batez gozatzeko Euskal Herriko antzezle hoberenetarikoen eskainirik.

## ▣ “Loba” ikusgarria Bordalen

Ikus 2.4.

## ▣ Baionako hiria

Kontzertu atipikoak antolatuak izan dira Baionako besten denboran :

- Uztailaren 25ean : Landarbaso taldearen kontzertua
- Uztailaren 26an : Joël Merah-ren musikaldia

## ▣ Angeluko hiria

Sustrai Colina eta Odei Barroso bertsolarien parte hartzea “Autour des arts de la parole” festibalakari, ekainaren 15ean, Angelun.

## ▣ Rocher de Palmer

### Euskal kulturaren hedapena Akitanian

### Hitzarmen baten izenpetzea Le Rocher de Palmer egiturarekin

Hiru partaideen arteko hitzarmen bat izenpetua izan da, 2014ko urriaren 31n, Euskal kultur erakundearen, Etxepare Institutuaren eta Le Rocher de Palmer egituraren artean.

Hitzarmenaren helburu nagusia da euskal kultura hobeki ezagutzera ematea Euskal Herritik kanpo eta haren ezaugarri nagusiak partekatzea publiko ezberdinekin. Konkrétuki, Le Rocher de Palmer ikusgarri gelan, eta inguruko baliabide tokietan (eskolak, liburutegiak, etabar) programa berezi bat bidean ezarria izan da, hiru ardatzen inguruan :

1) Gutxienez, hiru euskal musika talderen emanaldiak bilduko dituen programazioa.

2) Aste-beteko euskal musika tradizionalako erresidentzia-ikastaroa.

- P. De Ezkurra/Vanessa Ugarte/Kattalin Indaburu-ren kantaldia
- Hinka taldearen musikaldia
- Otxote Ertizka taldearen kontzertua.

3) Programa honetan euskal kulturarekin lotu ekintzak garatuko dira : argazki erakusketa, hitzaldia, literatura ekimen bat Bordeleko azaroko liburu azokan.

### ▣ Dordoina : Euskal dantza "Paratge 2014" jaialdian

2014ko ekainaren 12tik 15era, Okzitaniako hizkuntzaren eta kulturaren aldeko "Paratge 2014" festibala iragan da Dordoinako Bourdeilles herrian. Aurtengo programazioak euskal kulturari tarte zabala egin dio, Euskal kultur erakundearekilako partaidetzari esker.

2012an sortu "Paratge" festibalaren xedea, Okzitaniako hizkuntza eta kulturaren aldeko une azkar bat izatea da. Bourdeilles-eko gazteluaren inguruan antolatu jaialdi honetako aurtengo hari gorria dantza izan da.

Ikusgarriak, kontzertuak, topaketak, ipuinaldiak, dantzaldiak... Biziki egitarau aberatsa da antolatzaileek apailatu dutena. Aurten gainera, Dordoinako kultura agentziaren eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetza bati esker, euskal dantzak toki berezia ukanen du lau egun horietan.

Ikusgarrien aldetik, **Elirale** konpainiak « Ninika » eskaini du, **Traversée** konpainiak « Hiru zitroin lur hotzean » eta **Etorkizuna Kontzeptuak**-ek "Ravel jauna".

Bestalde, Caroline Otero eta Catherine Guillaud-en « Oroitzen naiz... - Je me souviens » dokumentala ikusi ahal izan da eta **Roger Goyheneche**-k euskal dantzari buruzko mintzaldia eskaini du.

### ▣ Donibane-Lohizune

2014-a trantsizio urtea izan da hiriarentzat, hauteskundeengatik eta ekitaldi guttiago antolatuak izan dira. 2014 urte bukaeratik dinamika berri bat abiatu da zerbitzu ezberdinekin (Kultura, Euskara, Mediateka) baina ere elkarrekin.

- Baratze botanikoa-rekin (Odei Barrosoren egonaldi artistikoa)
- 2014ko azaroaren 7a : Eneko Bidegain: « Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria » ("La Première Guerre Mondiale et le Pays Basque" Elkar, 2014) liburuaren inguruko topaketa - mintzaldia. Euskaraz bat bateko itzulpenarekin frantsesera

## ▣ Hendaia - Abbadiako Behatoki Jauregia

### « Kaperan A Kapela » zikloa

Euskal kultur erakundeak, Hendaia hiriak eta Hendaye Tourisme elkarteak antolatutako zikloaren 11. edizioa, a capella kantuari zuzendua.

- 2014ko apirilaren 19a : H-Eden (Maddi Zubeldia eta bere musikariak)
- 2014ko urriaren 4a : Etchegoyhen ahizpak

## ▣ Biarritz – Euskara Bulegoarekin partaidetza

2012. urtean bultzatutako elkarlanaren segida. 2013an, EKEk bere aholku artistikoak ekarri ditu « Mintzalasai » festibalaren programazioarentzat (irailaren 22tik 28ra, euskarazko erabilera sustatzen duen hitzordu nagusia Biarritzen). Irailaren 27an, EKE Kabarete gaualdiaren ko-antolatzaile izan da (euskaraz egiten den sorkuntza artistikoaren aurkezpen gaualdia). Programatuak izan dira: Eneritz eta Ortzi (bertso), Nulot (Magia), Neo Kotilun (dantza), « Euskalduna naiz eta arraro nago » (Antzerkia), Ixabel Millet (ipuinaldia), Nahia Zubeldia – Matthys eta Alberto (rock eta elektro musikak - grafismoa), Maite Dugulako (Antzerkia), Birle (musika).

## ▣ CCAS : Euskal kulturaren ekonomia munduan

Aitzineko urteetan bezala Euskal kultur erakundea proposamen iturri izan da eta animazio egitarau bat osatu du opor zentroak kudeatzen dituen CCAS enpresa komitearentzat. Ekimen honek udatarrei euskal kulturaren inguruko tailerrak proposatzea du helburu tokian tokiko kultur eragileen lana baloratuz eta ekarpenak baliatuz.

Laugarren urtea da CCAS enpresa komiteak Euskal kultur erakundeari, kultura baliabide-zentro gisa, programa baten antolatzeko proposamena luzatzen diola. EKE-k finkatu eta adostu egitarauaren haritik ondoko kultur gaiak jorratuak izanen dira.



### 3.3.3. Mugaz gaineko lankidetzaren garapena

#### ▣ Donostia – Koldo Mitxelena “Iparraldea bertan” zikloa

##### Ekitaldiak :

- “Hitzenea” erakusketa  
Muntaia, desmuntaia, beste gastuak
- Oskar Alegriaren gastuak : argazki eskubideak eta estreinaldirako bisita gidatua
- Sustrai Kolina bertsulariaren emanaldia
- Eneko Bidegain-en mintzaldia

##### Kantaldiak :

Beñat Achiary eta P. De Ezkurra  
Naia Zubeldia – Matthys  
Maddi Oihenart eta Jérémie Garat

#### ▣ Donostia - Donostia Kulturarekin partaidetza Belako taldearen egonaldiak

Donostiako Intxaurrondo Kultur Etxean – apirilaren 7 eta 9a  
Biarritzeko Atabal Musika Aretoan – apirilaren 10 eta 11a

Egonaldi hauekin batera, inguruko ikastetxeekin bi topaketa egin dira :

- Intxaurrondon, apirilaren 9an, 11:30etan, Lauaizetako Ikastetxeko DBH 3-ko 100 ikasle.
- Biarritzeko Atabalen, apirilaren 11n, 10:00etan, Larzabal Kolegioko 12-13 urte bitarteko 50 gazte.

Topaketa hauen helburu nagusia, musikan, sorkuntza prozesuak nola gauzatzen diren erakustea izan da, eta hala, musikarekiko eta orokorrean kulturarekiko gaztetatik sentsibilizatzea.

Euskal kultur erakundeak eta Donostia Kulturak sinatu zuten hitzarmenari esker gauzatuko da ekimena hau. Hitzarmenaren ondorioz, elkarrekiko ezagutza sakondu da, eta hala, eremu ezberdinetako eragile, ekipamendu eta praktika kulturalen arteko elkarlana gauzatu.

Helburu nagusiak:

- Euskarazko sorkuntza eta ekoizpen kulturala bultzatu
- Ekipamenduen arteko ezagutza eta elkarlana bultzatu
- Kulturarekiko sentsibilizazioa eta kultur sozializatzeko jarduerak egin eta publiko berrien sorkuntza garatu.

## ▣ “Emak Bakia” filmaren proiektzioa - Oscar Alegriaren filma

Donostiako Ernest Lluch Kultur Etxea - maiatzaren 21ean

Filmaren proiektziorako Kultur Etxearen gela gainezka egon da. Gaualdia, Oscar Alegriaren presentziarekin iragan da eta filmaren ondotik, solasaldi bat izan da Joxean Fernandez Euskal Filmotekaren zuzendariarekin. Proposamena eta ekintzaren koordinazioa lanaren parte bat Euskal kultur erakundearen esku izan da.

## ▣ “Orobil borobila” ikusgarriaren hedapena

Kiribil konpainiaren “Orobil borobila” ikuskizuna, Larrotxeneko Kultur Etxean emana izan da, 2014ko martxoaren 8an.

## ▣ Eusko Jaurlaritzarekilako partaidetza - SAREA - apirilaren 28an Erreterian

“ Publikoenganako bitartekaritza eta sentsibilisazioa Euskal Herrian ”

2013 urtean, SAREAk eta Euskal kultur erakundeak egonaldi artistikoaren gaiaren inguruan Euskal Herriko programatzaileak gomiatu zituzten Gasteizen. Aurten ere berriz elkartu dira, Erreterian Herriko Etxearen sustenguekin, trukaketa momentu baten eskaintzeko « publikoenganako bitartekaritza eta sentsibilisazioa Euskal Herrian » gaiaren inguruan.

Topaketa hau publikoenganako dantza heziketari zuzentzen den Dantza Gunearen bigarren egunaren egitarauaren barnean kokatu da.

Bidasoaren bi aldeetako berrogei bat programatzaile bildu dira egun hortan Rouge Elea konpainiaren « Ronde » sorkuntzaren ikusgarriaren aurrerapena ezagutzera, Erreterian Niessen aretoko entsaio gelan. Ondotik, Rouge Eleak berak, baina ere Dejabu panpin Laborategiak, Kukai konpainiak eta Dantzaz konpainiak daramaten heziketa lanaren aurkezpenak eskaini dituzte. Galderak eta errandakoak goi mailakoak izan dira parte hartzaile anitzen artean. Dantza gunea egituraren egoitza berriaren bisitatzeko aukera izan da ere bai, nun trukaketak segitu dira eragilean artean antolatzaileek eskaini luntxaren inguruan. Orotara, egun aberatsa EHko egoera desberdinak elkar banatzeko.

## ▣ Soinuenea – Oiartzun (Gipuzkoa)

Maddi Zubeldia eta H Eden taldearen kontzertua, uztailaren 12an, Oiartzunen.

## ▣ Getxo

« Iparra galdu gabe »

- Eneko Bidegain-en mintzaldia
- Philippe de Ezkurra, Kattalin Indaburu eta David Arriolaren kontzertua
- Itxaro Borda idazlearen mintzaldi / irakurketa
- Solasaldia, Odei Barroso eta Xabi Payarekin

#### ▣ 49. Durangoko azoka - 2014ko abenduaren 4tik 8ra

2014an, Euskal kultur erakundearen eta Gerediaga elkarren arteko lankidetzak sakondu eta egonkortu da, Azoka euskal kulturaren eta euskarazko sorkuntzaren erreferente eta topagune gisa finkatzeko.

Norabide horiek segituz, EKEren laguntza eta ekarpena Durangoko Azokan ondoko hau izan da Maiatz, Ikas, Gatzuzain argitaletxeentzat, Agorila eta ZTK disketxeentzat, Aldudarrak Bideo ikus entzunezko egiturarentzat eta Iparraldeko ikastolak elkarreentzat :

- Ipar Euskal Herriko kultura eragileen parte hartzea erraztu erakusmahaien alokairu prezioak ttipituz,
- lan administratiboa segurtatu (bakoitzaren izen-emateak azokan eta gunes desberdinetan),
- diru laguntza Durangora joateko eta egoteko,
- promozio lana (webgunearen eta berritasunen katalogo argitaratzearen bidez),
- laguntza komunikazioarentzat (prentsurrekoak eta prentsa agiriak antolatuz),
- animazioen koordinazioa azokan berean (idazle topaketak, kontzertuak, tailerrak haurrentzat)
- mahain inguruetan parte hartzea (kultura eta numerikoa adibidez)

2014. urtean Euskal kultur erakundeak oraindik urrunago inplikatu da Durangoko Azokan bere erakus-mahai bertan instalatuz.

Operazio horretaz alde baikorrak atera ditu, hala nola : Euskal Herriko kultura ekimen garrantzitsuenetariko batean parte izatea, estand ikusgarria instalatzea, harremanak egonkortzea Hegoaldeko partaideekin, EKEren presentzia indartzea azokan, Iparraldeko parte hartzaileekin harremanak egonkortzea, Gerediagarekin partaidetza baikorra.

**Horren ondoren, urtero bezala, EKEk aurkezpen/ekitaldi andana bat koordinatu ditu azoka denbora, azokaren gunes ezberdinetan presentzia bat segurtatuz.**

#### AHOTSENEA GUNEA - IDAZLE AURKEZPENAK eta KONTZERTUAK

Abenduaren 5ean, ostiralez

15:30 | Liburu aurkezpena – Solasaldien karpa  
Eric Dicharry « *After Banksy* »

Abenduaren 6an, larunbatez

16:20 | Kontzertua – Ipar eszenatokia  
Damba « *Damba Cubadisco* »  
17:00 | Liburu aurkezpena - Solasaldien karpa  
Itxaro Borda « *Zure hatzaren ez galtzeko* »

Abenduaren 7an, igandez

11:40 | Kontzertua - Hego eszenatokia  
Maialen Errotabehere « *Biluzik* »  
14:20 | Kontzertua - Hego eszenatokia  
Amaia Riouspeyrous « *Milaka* »  
15:30 | Liburu aurkezpena - Solasaldien karpa  
Marikita Tambourin « *Emazte izenak* »

Abenduaren 8an, astelehenez

12:45 | Liburu aurkezpena - Solasaldien karpa  
Tittika Rekalt « *Mula Nazrudin eta...* »  
17:45 | Liburu aurkezpena - Solasaldien karpa  
Xipri Arbelbide « *Euskal elizaren historia* »

#### PLATERUJENEA - KAFE ANTZOKIA

Abenduaren 8an, astelehenez  
14:00 | Kontzertua  
Saioa "B"

#### SAGUGANBARA - HAURREN TXOKOA

Abenduaren 7an, igandez  
12:00 | Tailer grafikoa  
6-10 urteko haurrentzat  
Paxkal Bourgoïn, "Dutea" triologiaren inguruko topaketa  
13:00 | "Biribil" emanaldia  
2-5 urtekoentzat  
Josiane Aguerre Valencia eta Philippe Albor, "Biribil"

#### KABI@ - TEKNOLOGIA ETA EDUKI LIBREEN GUNEA

Abenduaren 7an, igandez  
12:30 | Mahain ingurua  
"Euskal kultura eta okzitandarra sustatzeko tresna digitalak" (EKE, Sondaqui.com, Etxepare Institutua,)

#### ARETO NAGUSIA – GOGOETAREN PLAZA

Abenduaren 5an, ostiralez:  
14:30 | Liburu aurkezpena  
Sarako Ondarea elkartea "Sarako etxeak"  
15:00 | Liburu aurkezpena  
Emilio Lopez Adan « *Biolentzia politikoaren memoriak 1967-1978* »

Abenduaren 6an, larunbatez:  
15:30 | Liburu aurkezpena  
Jean Louis Davant « *Aljeriaz* »

Abenduaren 8an, astelehenez  
12:00 | Liburu aurkezpena  
Xipri Arbelbide « *Gogoetak* »

## 3.4 | Kultura aktoreen eta elkarte-kideen sostengatzea

### 3.4.1 Laguntzen gida

EKE-ren gaitasun eremua eta parte-hartze moldea zehazteko, lantaldea diru-laguntzen gida baten gauzatzeko hasi da 2014an.

Dirulaguntzak definitu ditugu, lurraldearen beharren arabera, baita ere EKEk aitzinatu nahi dituen baloreen arabera. Helburuak, hautagai izateko kriterioak, dirulaguntzen ordainketaren modalitateak baita ere beharrezkoak diren partaideak definituak izan dira.

Hala ere, desmartxa ez da bururatua izan, eta beste erakunde publikoek dituzten dispositiboekin osagarritasuna gehiago lantzea galdegin du EKEren Administrazio Kontseiluak. Argitasuna eta eraginkortasuna irabazteko, partaide instituzionalekin lan bilkura gehiago antolatua izanen dira.

### 3.4.2. Elkarteei, artisteei eta Herriko Etxeetako langileei zuzendu formakuntzak eta informazio bilkurak

#### ■ « Dispositif Local d'Accompagnement (DLA) Aquitaine » dispositiboarekin

Elkarteei eta artisteei buruzko formakuntzak.

Formakuntza guztiak dohainik izan dira.

Kultura aktoreek arazoak edireiten dituzte beren eguneroko ibilamoldean eta behar bereziak badituzte formakuntza alorrean.

Euskal kultur erakundeak erabaki du laguntza zehatzak ekartzea sail horretan, eta ondorioz, formakuntza plangintza bat alhan ezarri du, DLA deitu dispositiboaren babesean.

Huna Euskal kultur erakundeak proposatu formakuntza, DLA Aquitaine erakundearekin partaidetzan :

2014ko apirilaren 10ean : **«Elkarte kudeatzaileen legezko ardurak »**

Hizlaria : Philippe Etcheverria jauna - DDVA (Délégué Départemental à la Vie Associative erakundekoa).

Parte-hartzaileak : 19

2014ko ekainaren 14an : **«Kontabilitatearen eta elkarten kudeaketaren oinarriak »**

Hizlaria : Lahbib Maouhoub jauna, Cap Sud-Ouest erakundekoa. Parte-hartzaileak : 14.

2014ko ekainaren 26an : **«Bilkuraren kudeaketa»**- Hizlaria : Alain Sartou jauna.

Parte-hartzaileak : 10.

Bestalde, hamalau elkarte edo egiturek **«Egitasmo kulturaren kudeaketa»** gaia landu dute, **«Sensibile»** egitamoko Frédéric Bobst jaunarekin.

## ■ Relais Culture Europe egiturarekin partaidetza - Uztaritze - Maiatzaren 27an

### ***Europa Sortzailea - Kultura Europa batentzat 2020. urterako***

Europar Batasunaren kultura egitarau berriaren aurkezpena.

2014ko maiatzaren 27an Uztaritzeko Lapurdi gelan, Relais Culture Europe egiturak eta Euskal kultur erakundeak 2014-2020 urtetarako Europar Batasunaren kultura egitarau berriaren aurkezpena antolatu dute, « Europa Sortzailea » izenekoa.

Egitarau honek kulturaren eta ikus-entzunezkoaren garrantzia azpimarratzen du, Europar integrazioaren eragile bezala. Finantzaketa tresna bat baino gehiago, Europa Sortzaileak proposatzen du hemendik 2020. urtera kultura anitzeko Europa bat, munduari irekia dena, eta ekonomia nahiz sozial alorreko berrikuntzen aldekoa.

Europa Sortzailea egitarauaren karietarako deialdia heldu den uztailan zabalduko da. Egitarauaren helburu orokorrak hauek dira : Europako kultura eta hizkuntza aniztasunaren salbatzea eta sustatzea ; alor kulturalaren eta kreatiboaren lehiakortasuna azkartzea ; Europar Batasunaren 2020ko estrategian parte hartzea.

Egun horrek, egitarau berri hau ulertu nahi duten eta norberaren alorrean edo lurraldean gai hortan inplikatzeko diren lurraldeko 30 bat eragile, sortzaile, ekoizle, banatzaile, elkargo, egitura edota agentzia bildu egin ditu.

RCE elkartearekin batera, EKEk harrera berezi bat egin die Lota jauregian Europar egitasmoetan ari diren proiektu eramaile batzuei, bakoitzaren desmarxta sendotzeko asmoz, banan-banako elkarrizketa batzuetan. Hala nola, Ballet Biarritz - Centre Chorégraphique National, Hendaiako Itsas Bazterra CPIE Littoral basque zentroa eta Bidarteko COOP elkarteak errezibituak izan dira.

Informazio egun aberatsa, jarraipena ukanen duena, Departamenduarekin batera, « Plateforme Interdépartementale Europe Atlantique – PIEA » delako egituraren baitan.

### 3.4.3 Elkartekideei banatu dirulaguntzak

#### ● 25. XIRU Festibala

##### Abotia elkarte

##### 2014ko apirilaren 11, 12 eta 13an

Festibalaren programazioari laguntza. Maulen, Gotaiñen eta Irabarnen iragan den jaialdian, artista hauek aritu dira : Altzai herriko kantariak, Asisko Urmeneta, Mixel Etxekopar, Mathieu Mendizabal, Beñat eta Julen Axiari, Amaren Alabak eta « Barbau Hamalau » ikusgarriaren lehen pausoen aurkezpena.

#### ● « Hestivoc » festibala

##### Accents du Sud elkarte

##### Agorrilaren 21etik 24era Pauen

Iparraldeko artisten parte hartzea « Hestivoc » festibalean.

#### ● 25. Txontxongilo egunak

##### Akelarre elkarte

##### Hendaian, azaroaren 18tik 23ra.

Ikusgarriak : “Muruen Bidaia” - Behi Bi’s taldea (eskolendako emanaldia) ; “Itsasminez”- Txontxongillo taldea ; “Barreras” - Iñaki Mata ; “Les mystérieuses coiffures et son monde de marionettes” - Christophe Pavia ; “Iraungorriko Marimiri” - Zurrunka taldea ; “Urtaroak Vivaldiren begietan” - Txontxongillo taldea.

« Kontu Kontari », txontxongiloei buruzko erakusketa azaroaren 18tik 22ra Mendi Zolan gunean, Txontxongillo taldearen eskutik (taldeak bisita gidatuak ere proposatzen ditu).

#### ● Literatura eta poesia ekitaldiak Hendaian

##### Akelarre elkarte

- X. Literatura mintzaldia  
Maiatzaren 31a, larunbata : Eider Rogriguez idazlearekin topaketa Hendaiaiko Mediatekan « Haragia » eta «Katu Jendea » liburuen inguruan.
- V. Poesia emanaldia  
Urtarrilaren 25ean, larunbata : Hendaiaiko Abbadia jauregian Patri Urkizu, Fernando Morillo eta Ekhiñe Eigurenekin.
- V. Irakurraldi publikoa  
Ekainaren 14a, larunbata : Joseba Sarrionaindiaren « Kolosala izango da » liburuaren irakurraldi maratonia.

● **“Mom’Expo”**

**Allez les mômes elkarte**

**Euskal artisten programatzea “Mom’Expo” azoka kari**

Baionan (Lauga gela) 2014ko apirilaren 15ean eta 16an. Sukaldaritza tailerra euskaraz Adelaide Daraspe-ekin (« La Cerise sur le gâteau »), egun osoan zehar.

● **« Le trésor des peupliers »**

**Les amis du Château Fort de Mauléon elkarte**

Agorrilaren 8an eta 9an : Dantza, kantu eta musika sorkuntza, Xiberoko Zohardia taldearen partaidetzarekin.

● **Errenteriako Harmonia orkestraren urtebetetzea**

**Anaiki elkarte**

Elkartearen kontzertu baten parte hartzea.

● **« Territoires mobiles »**

**Arcad elkarte**

« Territoires mobiles » deitu egitasmoarentzat laguntza : egitasmoa artistikoa non ere hiru lan alor gurutzatzen diren : ikerketa, esperimentazioa eta arte plastikoak.

Gaia : mugen nozioaren deskribapena.

● **Argazkiaren Biltzarraren 22. edizioaren antolaketa, irailan, Donibane Garazin**

**Argian elkarte**

Aurtengo gaia « Gastronomie ». Sarien banaketa irailaren 28an.

Biltzarraren 1. saria : Igotz ZIARRETA – Bartzelona (Katalunia), “last supper”.

Biltzarraren 2. saria : Xantxo ERNAGA - Arrosa (64780), “zikiro eguna”.

Biltzarraren 3. saria : Lionel VÉRET - Le Havre (76400), “dégustation et travail”.

Donibane garaziko ibarraren saria 2014 : Javier YARNOS - Iruñea (Nafarroa), “talo”.

Publikoaren 1. saria : Alfonso SEGURA - Iruñea (Nafarroa), “fresa”.

Publikoaren 2. saria : Léon TRACERRE , “initiation”.

Publikoaren 3. saria : Aitor ARENAZA BERRUETE - Lizarra (Nafarroa), “antes de comer lavar”.

Argazki ibilaldiaren saria : María Jesus RUIZ DIAZ - Lizarra (Nafarroa).

Argazki ibilaldiaren saria | 15urtez pekoen saila: Sandra BISCAÏCHIPY - Eiheralarre (64220).

Argazki ibilaldiaren saria: sustatze saria: Ana LHOSMOT- Donibane Garazi (64220).



## ● « Otxote festibala » Kanbon, maiatzaren 2an eta 3an

### Arraga elkarte

Maiatzaren 2an : Urruñako Tximi-Txama, Añorgako Ertizka taldea, Arrangoitzeko Adixkideak taldea eta Donostiako Coro Easo taldea.

Maiatzaren 3an : Urruñako Tximi Txama, Donostiako Gaztelupe taldea, Iruñeako Voces Graves taldea eta Bordaleko Lurra taldea.

## ● « Aterpean » artista egonaldiaren 7. edizioaren laguntza

### Atelier elkarte

Laugarren urtea da bi konpainia hautatuak direla Aterpean programarentzat. Haien sorkuntzak Dantza Hirian festibalaren kariatara aurkeztu dituzte 2014ko irailan.

#### *“Lauesku” | Lasala Kia:*

Gero eta ezagunagoa egiten ari den LASALA konpainia gipuzkoarreko Judith Argomaniz koreografoak “LAUESKU” proposatu du, hiru dantzarirentzat prestatutako euskal pilotari buruzko sorkuntza-lan bat. Pilota-partida baten bitartez, joko-arauak zalantzan jartzen dituzten hainbat egoera aurkezten dira. LAUESKU lanaren interpreteak hauek izan dira; **JUDITH ARGOMANIZ, JAIO TZ OSA eta LIONEL AH-SOU** (Dantzaz Konpainiatik etorria).

- Uztailaren 14tik 20ra Egiako Kultura Etxean (Donostia)
- Uztailaren 21etik 27ra Biarritzeko CCN Malandain Balleten
- Uztailaren 28tik abuztuaren 1era Dantzagunean (Errenteria)

Sentsibilizazio-ekintzak (sorkuntza-prozesura hurbiltzea)

- Uztailak 17 / Egiako Kultura Etxea > Topaketa (pilotariak)
- Uztailak 25 / Gare de Midi > Entsegu irekia (publiko orokorra)
- Uztailak 30 / Dantzagunea > Entsegu irekia (publiko orokorra)

#### *“36.5°” | Vilaseca Kia:*

VILASECAren “36,5°C” lana break-dance-aren eta gaur egungo dantzaren ezagutzari buruzko gogoeta, elkarrizketa, kritika eta zabalkundea bilatzen duen lan bat da. Sorkuntza-lan honetako partaideak, gaur egungo dantzaren heziketa jaso duten break-dance-ko dantzariak dira: **CHEY JURADO**, aurtien hirugarren aldiz jarraian **Red Bull BC One** lehiaketa ospetsuaren finala irabazi duena eta azaroaren 30ean Séoul hirian (Hego Korea) Espainiaren ordezkari izan dena, **LAURA JIMÉNEZ**.

- Uztailaren 7tik 13ra Dantzagunean (Errenteria)
- Uztailaren 14tik 20ra Mendi Zolan (Hendaia)
- Uztailaren 21etik 27ra Egiako Kultura Etxean (Donostia)

Sentsibilizazio-ekintzak (sorkuntza-prozesura hurbiltzea)

- Uztailaren 11a / Dantzagunea > Entsegu irekia (publiko orokorra)
- Uztailaren 18a / Mendi Zolan > Topaketa (ezinduak helduak)
- Uztailaren 24a / Egiako Kultura Etxea > Entsegu irekia (neska-mutilak)

## ● Itzuli Mitzuli – Txontxongilo egunak

### **Azika elkarte**

Txontxongiloaren lehen besta Bidaxuneko inguruetan ospatu da 2014ko urriaren 13a eta azaroaren 7a artean Azika konpaniaren «Barne Iluna », « Odisea », « Lau sasoi » eta “Herrialde urdiña » ikusgarriekin bai eta, Pas Sage konpaniaren laguntzarekin, Akamarre, Bardoze, Bidaxune, Sames eta Hastingues herrietan.

## ● Udako erakusketa Ezpeletan

### **Begi Argi elkarte**

Udako erakusketa Ezpeletako gazteluan, uztailaren 18tik agorrilaren 17ra.

Gaia : « Ohidurak eta Iduripenak ».

## ● Hendaia Film Festibala : film laburren lehiaketarako laguntza

### **Begiradak elkarte**

2014ko urriaren 16, 17 eta 18an iragan den Hendaia Film Festibalaren kariatara, Begirada elkarteak Akitanian eta Euskadin ekoiztu film laburren deialdia antolatu du.

## ● Bertsularitzaren alde

### **Bertsularien Lagunak elkarte**

Euskal kultur erakundeak Bertsularien Lagunak elkarte laguntzen du bertsularitza garatzen eta zabaltzen:

- elkarteak antolatutako saioak eta beste tokiko elkarteek antolatutako bertsu-saioak lagunduz (bertsulariak ordaintzeko dirulaguntza eskainiz eta sonorizazioa segurtatuz), hots 21 saio 2014an,
- elkarteak antolatzen dituen lehiaketak, sariak eta xapelketak sustatuz.

Azken sail hauetan azpimarratzekoak diren ekitaldiak :

- Hernandorena saria Itsasun maiatzaren 3an,
- XILABA Txapelketaren 4. edizioa, urriaren 4tik azaroaren 15era. Baionan iragan den finalean, Sustrai Colinak jantzi du Txapela.

Bestalde Euskal kultur erakundeak ikerketa saila laguntzen segitu du bideo kamera bat prestatuz, bertsularitzari buruzko saioak grabatuak izan daitezten.

EKEren aholku eta mediazio lanari esker, Bertsularien Lagunak elkarteak Departamenduko Heziketa artistiko eta kulturala saileko arduradunekin bildu da lehen aldiz 2014ko apirilaren 1ean. Partaide kulturala izendatua izanik 2013an, Bertsularien Lagunak-ek 10 000 €ko dirulaguntza eskuratu du bertsu-eskoletako hezkuntza artistikoarentzat.

● **Kabalkada - Zintzarrotsa**

**Bertoli elkarte**

Urruñan erdi-arotik datorren eta mende batez galdu zen usaia baten berpiztea (dantza, antzerkia, musika eta kabalkada elkartzen dituen). 150-180 lagun bildu dituen ekitaldia (50 kabalkadako pertsonaia, 60 dantzari, 20 antzezle, 25 musikari eta 30 josle). Urruñan 2014ko ekainaren 7an eta 15an aurkeztua izan da.

● **« Zinegin » festibala – Hazparne - 2014ko azaroaren 27tik 30ra.**

**Beti Erne elkarte**

Euskal Herriko zinema eta dokumental ekoizpenaren hedapenari laguntza : « Loreak » - Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga, « Haien gaztaroan, iragana agerian » - Elsa Oljar Inès, « Génération des autonomistes basques » - Sylvie Garat, « Xalabador, Izana eta Izena » - Eneko Dorronsoro baita ere Iratxe Fresneda-ren « Asier Altunaren urratsetan » izeneko hitzaldia.

● **“Bi Harriz Lau Xori festibala”**

**Biarritz Culture elkarte**

**2014ko martxoaren 18tik 22ra**

Petit Théâtre de Pain konpainiaren « Hamlet » eta Cesc Gelabert / Kukai konpainiaren « Gelajauziak » ikusgarrien emanaldiei zuzendua da laguntza. « Hamlet » eta Rouge Elea konpainiaren «Biutz» obren inguruan eraiki mediazio ekintzak sustengatuak izan dira ere bai.

● **Eskolarteko eguna trukaketa kulturalaren lelopean publikoko eskola elebidunentzat**

**Biga Bai elkarte**

2014ko ekainaren 5an Beskoitzen. Hiriburu, Lehunze eta Beskoitzeko 100 bat ikasleren topaketa : egun osoan zehar tailer kultural ezberdinen bidez euskara praktikatu ahal izan dute. Hauek izan dira eragileak : Eskulari(pilota) et Beskoitzeko Elgarrekin elkarte (euskal indarra), Oreka (zirkoa), le Théâtre des Chimères, Ixabel Millet (ipuina), Karlos Aizpurua (bertsu), Idoia Datchary (dantza) eta Euskal pilotaren liga.

● **Musikaren besta Urdiñarben**

**Bil Xokua elkarte**

**Ekainaren 6etik 8ra**

Ekainaren 6an : Kauter zinfoniaren kontzertua,  
Ekainaren 7an : Ezpela eta Moï Moï taldeen kontzertuak,  
Ekainaren 8an : Begiz Begi taldearen eta Niko Etxart-en kontzertuak.

## ● Euskal kultur animazioak Bordalen

### Bordaleko Euskal Etxea elkarte

Ondarearen egunakari, euskal kultur animazioak Bordaleko Euskal Etxean, irailaren 20an : musika eta dantza tailerrak, Bestalariak eta Aizkoa taldeen kontzertuak.

## ● Euskal zinearen banaketari laguntza

### Cinéma et cultures elkarte

#### 2014ko martxotik abendura

Ondoko dokumentalen banaketari laguntza :

- Aitor Merinoren « Asier eta biok », filmaren 47 emanaldi Iparraldean, Britainan eta Parisen
- Elsa Oljar-Inèsen « Dans leur jeunesse il y a du passé », filmaren 10 emanaldi Akitanian.

## ● « Hurbiletik, urrunetik » sorkuntzari laguntza

### Compagnie des Syrtes elkarte

Izturitzeko eta Otsozelaiko harpeak baloratzen dituen Jean-Louis Hargous-en musika sorkuntzari laguntza. Lan garaikide honek gunearen dimentsio soziala, kulturala, historikoa eta soinuaduna azpimarratzen du. Obraren sorkuntza Arte eta Zientziak Gune Kulturalaren « Orainaren bilaketa » programazio atalean kokatzen da, maiatzaren 19an eta 20an harpeetan aurkeztua delarik.

## ● "Nekatoenea" euskal idazle egonaldia Hendaian

### CPIE Littoral basque elkarte

Laugarren edizioaren kariatara zientzialari bat hautatua izan da, Aitzol Lasa matematikari nafarra, hain zuzen. Literatura egonaldia 2014ko urriaren 6tik azaroaren 2ra iragan da.

Euskal kultur erakundea, Euskal Idazleen Elkarte, eta Euskal Itsasbazterreko Ingurumen Aldeko Ekimen Zentro Iraunkorra (IAEZI) elkarlanean hasi ziren 2011. urtean, idazle bati hilabete osoz Hendaiaiko Abbadia eremuko NEKATOENEA baserri zaharberrian bere idazketa lanean aritzeko aukera emanez.

**Aitzol Lasa** (Barañain, 1978), matematikaria da eta matematikako irakaslea Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.

Proposamen berezia aurkeztu du, matematikak eta literatura batu dituen.

Bere hitzetan *“Letrak eta zientziak oso ongi uztar daitezke, ez dira kontrajarrita; aitzitik, elkarren eskutik joan daitezke”*. Beraz, zientzia gazteengan hurbiltzeko asmotan, zenbakiak eta formulak baino, hizki, esaldi eta esaerak landu ditu.

Matematika irakasle izanik, zientzia bereziki gazteei ulertaraztea izan du helburu idatzitako hainbat artikuluekin. Baina haratago joan nahi izan zuen eta eleberritan hasi zen 2009. urtetik. Irabazi sarien artean, ELHUYARrek ematen duen saria irabazi zuen 2011. urtean, Elhuyarren zientzia-narrazioak kategoriko saria irabazi zuen, *“Hodeietan”* gazteei zuzendutako liburuarekin.

Euskal kultur erakundeak *“HOGEI'TA”* programaren barnean kokatu du literatura egonaldia, gazteen sorkuntzari lagunduz edota gazteentzat sor daitezkeen arte lanak sustengatuz.

Itsasbazterreko CPIE erakundearentzat biziki aproposa izan da Aitzolen proposamena, elkarteak betidanik arte eta zientziaren arteko zubiak eraikitzeko ahaleginak egin baititu.

Egonaldiaren egitasmoak bigarren jarduera bat proposatu du, idazleak gazteekiko elkarlan bat eskainiz. Lana aurreratu ondoan, Aitzol Lasa, eskualdeko kolegio bateko gazteekin aritu da lanean. Gazte taldeak literatur zientifiko horretan sartzeko aukera izan du, ikasturte osoan zehar idazleak egin duen idazketa prozesua hurbiletik segituz. Horren ondotik, haiek ere beren idazlana egiteko aukera ukan dute.

## ● Euskal Herria Zuzenean festibalari laguntza

### Euskal Herria Zuzenean elkarte

#### Lekorne – 2014ko ekainaren 27, 28 eta 29an

EHZ festibalaren programazioari laguntza : Niña Coyote eta Chico Tornado, Gatibu, Esne Beltza, Kashbad eta Zea Mays taldeentzat.

## ● Hazparne eta herri elkargoko lurraldean ekitaldi kulturalen antolaketa

### Eihartzea elkarte

Urte osoan zehar Hazparneko eta Herri Elkargoko lurraldean hainbat ekitaldiren antolaketa

- ✓ Otsailaren 1ean: “Zure txanda Malu” haur txontxongilo emanaldia (Angeluko “Au fil du Théâtre” konpainiaren eskutik,
- ✓ Martxoaren 1ean : Ihauteriak, San Pantzarren auzia eta kontzertuak
- ✓ Ekainaren 14an: “Primaderako Musika klasiko gualdia”: 1. zatia: Soinubila - 2. zatia: Hots/Xare Laborategia (Musikene zentroan formatutako musikariek)
- ✓ 10. kultur astea : urriaren 11tik 18ra, Arbolaren tematikaren inguruan
  - Tokiko artisten argazki eta margo erakusketak Arbolaren gaiaren inguruan (Loyatho, Worboys, Pochelu, Etcharren, Behoteguy, ...)
  - Dantza, bertsularitza, txalaparta eta kantua lotzen dituen performantza artistikoa Eihartzea parkeko arbolaren erdian.
  - Zurezko jokoak familientzat
  - “Hostoak” emanaldia Mendeala gelan urriaren 18an (Oreka TX, Kukai, Amaren Alabak)
  - Mintzaldi ipuinaldia Hazparneko arbolei buruz Gabriel Urruty eta Vincent Lohiague-ekin.
- ✓ abenduan : Olentzeroren inguruko ospakizunak.

## ● Ekitaldi kulturalen antolaketa Baionan

### Elekatu Elikatu elkarte

Otsailaren 27an: « Euskal Herriko historia txanponen bidez azaldua » mintzaldia Mikel Legorburu-ren eskutik

- ✓ Martxoaren 27an: « Joxean hil eben” filmaren aurkezpena eta egileekin topaketa
- ✓ Apirilaren 24an: « Sendabelarrak” Jokin Zaldunbideren mintzaldia
- ✓ Ekainaren 5a: « Erabakitze eskubidea? » mahain-ingurua (M. Berhocoirigoin, F. Maitia, A. Oiarbide-rekin)
- ✓ Ekainaren 16a : « Gerra propaganda Lehen mundu gerran: Raemaesen marrazkiak” Ismael Manterolaren mintzaldia.

## ● « 01.01 » ikusgarriaren sorkuntza

### Elirale elkarte

Karrikarako galarrots performantza honek gorputza eta musikaren arteko lotura galdezkatzen du, dantzaria eta Atabalariaren bitartez. Egitasmoaren eramailea den EliralE konpainiak LagunArte konpaniarekin eraman du gogoeta baita musikari doakion sorkuntza.

Artista egonaldiak martxoan Maulen eta Bastidan ekainean. Sorkuntzaren aurkezpena 2014eko irailan.

- Interpretak: Jose Cazaubon eta Jokin Irungarai
- Musika-zuzendaritza: Kristof Hiriart
- Zuzendaritza koreografikoa: Pantxika Telleria
- Laguntzaile koreografikoa: Arantxa Lannes
- Feldenkraï's TM metodoan laguntzailea : Laura Beurdeley
- Testuaren gokitzailea : Sustrai Colina

## ● « Ka dira » ikusgarriaren hedapena

### Elirale elkarte

« Ka dira » sorkuntzaren hedapena : Bi emazte dantzariekin den ikusgarri hori haurtzaro ttiki-ttikiari zuzendua da. Claude Boujon-n « Kadira Urdina » obran oinarritua.

Publikoa : 3 urtetik goiti.

- Otsailaren 11a eta 13an : 4 emanaldi – Lormont-en, « Pouce » festibalean,
- Apirilaren 1etik 30era : 5 emanaldi Biarritzen – BHLX festibala,
- Azaroaren 15a : emanaldi bat Amorebieta-Etxanon (Bizkaia),
- Azaroaren 16a : emanaldi bat Durangon (Bizkaia).

## ● Kultura trukaketak eta « Bagoaz » dantza obraren hedapena

### Etxahun elkarte

Arnegiko Urrats Berri taldearen bitartez, « Bagoaz » ikusgarria agorrilean Barkoxen eta Arnegin eta horren hedapenaren prestakuntza San Francisco hiriko.

## ● 13. “Antzerkiaren astea”-ren antolakuntza, Urruñan (Itsasmendi gelan)

### Euskal Haziak elkarte

Elebidun erakaskuntza girixtinoan ari diren hurrekin, euskarazko antzerki agerraldiak muntatzea. Urtean zehar ikasleek prestatu dituzten antzerkiak, ekainaren 2tik 7ra aurkezten dituzte.

Hiru egunez, 13 ikastetxeetako 274 ikasleen parte hartzea orotara 15 antzezlanen aurkezpenarekin. (Haltsu, Urruña, Itsasu, Aiherra, Hazparne, Zuraide, Ortaize, Aldude, Donapaleu, Kanbo, Milafranga, Uztaritze, Donibane Lohizune).

● **Kultura emankizuna irratietan**

**Euskal Irratiak elkarte**

« Adi » deitu musika emankizunaren laguntzea, urtean zehar - Euskal Herriko eta kanpoko musika berriak eta lehenagokoak.

● **Kultura animazioa Aiziritzen**

**Euskal kultur elkarte**

Kantaldia azaroaren 16an : Menditarrak, E. Etxamendi, M. Tristant, A. Arraspin, Gaëlle Larroude, H. Miremont eta Amikuze Kantuz-ekin.

Kultur besta abenduaren 14an margo, argazki eta bideo erakusketa batekin : B. Laxague, F. Teillagorry, B. Lassalle, A. Morata et H. Laquet-Fiau (peintres), M. LaxagueM. Avella et J. Bunel.

● **Uruguaiako zinemaldian Venezuelan, euskal filmen hedapena**

**Eusko Ikaskuntza elkarte**

- « Bertsolari » (Xabier Altuna) 2014ko abenduaren 8an eta 13an,
- « Gazta zati bat » – Un pedazo de queso (Jon Maia), abenduaren 9an eta 13an
- “Urte berri on amona” (Telmo Esnal), abenduaren 11n eta 13an
- “Gartxot” (Asisko Urmeneta), abenduaren 9an eta 12an

● **Errobiko festibala**

**Ezkandrai elkarte**

**Itsasu – 2014ko uztailaren 17tik 20ra**

Jean Mixel Bedaxagar, Philippe Ezkurra, Jean-Christian Hirigoyen, Julen Achiary, Amaren Alabak, Benoît Lamerain, Maddi Oihenart, Beñat Achiary, Sophie Chutahandy, Julie Uribe eta Jose B Lenoir artisten programazioari laguntza.

● **Martxoko Etiopikoak festibala**

**Ezkandrai elkarte**

**Baiona – 2014ko martxoaren 5etik 9ra**

Martxoko Etiopikoak festibalaren 5. edizioari laguntza batez ere ondoko artistentzat : Joseba Irazoki, Mizel Théret, Beñat Achiary, Johanna Etcheverry, Julen Achiary, Eneka Bordato, Ttikia eta haundia, Maddi Oihenart eta Sylvain Luc.

● **“Gerezien denbora” ikusgarriaren hedapenarako dirulaguntza**

**Ezkandrai elkarte**

Pastorala hainbat lekutan hedatua izan da.

● **« Neo Kotilun » dantza sorkuntza**

**Foyer de Bardos elkarte**

Kanpoan emateko den pieza koreografiko honek 7 Kotilun gorri berri aurkezten ditu. 7 dantzariak 2 txalapartariak eta DJ batek lagundurik ari dira. 45 minutuko iraupena.

Taula zuzendaritza: Julien Corbineau (M. Viñolo-ren laguntzarekin)

Jantzi eta masken sorkuntza : KSI, Maider eta Julien Corbineau, Annie Onchalo

Soinu sorkuntza eta DJ-a : Alaia Berhonde

Txalaparta : Paxkalin Chabagno eta Paxkal Indo.

Lehen aurkezpena otsailaren 22an Bardozen. Emanaldiak : maiatzaren 11n Senperen eta uztailaren 5ean Bardozen.

● **35. Arte garaikide erakusketaren antolaketa**

**Foyer de Bardos elkarte**

Ekainaren 14tik uztailaren 13ra Salha jauregia gelan.

Aurtengo erakusketa : NANE eta LATTAPY (margolanak eta eskulturak)

● **Jazz'in Collège 2014 « Munduan Barna »**

**Foyer socio éducatif La Citadelle**

Baigorriko Jean Pujo, Donibane Garaziko La Citadelle, Iparralai elkarte eta Gasteizko Crescendo abesbatzaren kantarien arteko topaketa, munduko musikako errepertorio baten inguruan (8 hizkuntza ezberdin). Kristof Hiriart eta Mohammed Boujalal musikariek lagundurik. Kontzertua Garaziko Jai Alaian maiatzaren 2an.

● **Libertimendua eta 2015eko Dantza sorkuntza baten sortzea**

**Garzarrak elkarte**

**Libertimendua** : 2014ko martxoaren 2 an antolatua, dantza, antzerkia eta bertsua nahasten dituen ohitura da Libertimendua. Garzarrak dantza taldeko dantzariak eta Navarre lizeoko ikasleekin.. Libertimendu egunaz gain, mintzaldi baten antolaketa Antton Lukurekin Libertimenduaren ohidureta.

**Dantza sorkuntza:** Ixtan't: 2015eko martxoan aurkeztua izan den dantza sorkuntzari laguntza (2014an landua). Arantxa Lannes-en koreografiekin, Maika Etxekopar (antzerkia), Buuzbu taldea (musika) eta Maialen Martxalar (jantziak eta eszenografia).

● **«Petti Buhame » pastorala**

**Garindaiñeko pastorala elkarte**

« Petti Buhame » Pier-Pol Berzaitz-ek idatzi pastoralaren sorkuntza.

Uztailaren 28an eta agorrilaren 3an aurkeztua.



## ● « Makila » dantza sorkuntza

### Gazteria elkarte

Makilari buruzko euskal kantu eta dantza ikusgarria Parisen.  
Lanaren bigarren partea.

## ● « Haizeari » ikusgarriaren hedapenarentzat Iparraldean :

### Getaria dantza taldea

Ekainaren 22an Luhuson, uztailaren 11n, uztailaren 31n, agorrilaren 14an, irailaren 5ean Getarian, urriaren 11n Donapaleun eta azaroaren 30ean Urruñan.

## ● Hatsaren Poesia

### Hatsa elkarte

- ✓ “Olerkiaren eguna”-ren 4.edizioaren antolaketa apirilaren 6an. "Hatsaren Poesia 2014" liburuaren aurkezpena (16. alea) Senpere-Larraldean. Olerki idazle eta olerkizaleen topaketak: tailerrak, Idazleen olerki irakurketa, "Hatsaren olerki bustiak 2014" bideoaren aurkezpena.
- ✓ « Maite ditugun Olerkariak » : Aurten , Jon eta Josu Galdos , Senpere-Larraldean errezebituko ditu elkarteak "Lurretik Lurrera" poema liburuxkaren argitaratzaile diren bi anaia hauek (olerkiak, txalaparta eta margoak). Horrez gain, erakusketa bat iraganen da margo hauekin abuztuaren 8tik 17a arte, Senpere-Larraldean  
Abuztuaren 12an : « Eguzki sartze baten besta » : Txalaparta-olerki irakurketa bat, Hatsa elkarte, Galdos anaiak eta lagunekin, Senpereko Nañoenbordako muño gainean.

## ● Argazki erakusketa

### Hatza elkarte

HATZA elkarteak argazki erakusketa bat antolatu du hiru artista gomitatuz : François Cros, Bernard Jourdain eta Jean Marie Suhubiette. Ekainaren 3tik 28ra, Baionako Levant liburu dendan (La Traversée galerian). Erakusketa, irailan Donapaleun aurkeztua izan da Begiradak elkartearekin den partaidetzari esker.

## ● « Barbau Hamalau » sorkuntza

### Hebentik elkarte

Sorkuntzak Munduko lehen gerla du abiapuntu eta Xiberuko dantzari, kantari, musikari eta antzezle batzu biltzen ditu, bai eta Dominika Rekalt, Mixel Etxekopar, Sua elkarte, Pierre Thibaut edo Par-allèles hip hop konpainia. Emanaldiak uztailaren 23 eta 24ean aurkeztu dira Ozaze herriko bazter natural batean.

## ● “Hartzaro” festibala

### Herri soinu elkarte

2013ko azaroan eta abenduan egin tailerrak, Uztaritzeko eta Lapurdiko elkarteekin : “Hartzar altzoan” ekitaldia, artisten ikusgarriak, eskolekin trukaketa-lana.

## ● « Herri uzta » festibala

### Herri soinu elkarte

Errobi herri elkargoaren lurraldean dantza eta musika sorkuntzen musika festibala urriaren 9tik 12ra.

- ✓ Urriaren 9an osteguna : Festibalaren estreinaldia Etchegoyhen Ahizpak eta Kiki Borda artisten kontzertuekin
- ✓ Urriaren 10ean ostirala : Kanboko elizan : Kanbo Kantuz gualdia Uztaritzeko Txistulariak, Madamicella (Kortsika) eta Voces Riberas (Nafarroa eta Rioja)
- ✓ Urriaren 11n larunbata : Ezpeleta dantzan : Egun osoan zehar dantza emanaldiak eta ekitaldiak Ezpeletan. Basusarrin, Jotaren inguruko dantza tailerra Agnès Pérez-en eskutik .
- ✓ 21:00 – Arrangoitzen: Jota, fandago eta musiken inguruko gualdia : Aragoiko Jotak, Euskal Brass Band eta Begiz Begiren kontzertuak
- ✓ Urriaren 12an igandea: Arrangoitze - Mutxikoaren Eguna - Hats Berri elkartearekin antolatua.  
Mutxikoak, eta animazio musikala Ezpeletako txaranga, Gaita Luze eta Kiki Borda-ren eskutik. Emanaldiak : « Karrikako Sorkuntzak »; « 01.01 Dantzaria eta Atabalaria » - Elirale eta LagunArte konpainiak ; « Leihotik » - Etorrizuna Konpainia; « Burrunkarrika » - Burrunka taldea.

## ● « Tutak » kalerako sorkuntza

### Herri Soinu elkarte

2013an Toberen gaiaren inguruan sortutako emanaldiaren segida, amaturrekin eta profesionalekin. Dantza, perkusioak, musika, bertsuak eta antzerkia lotzen dituen emanaldia, Jokin Irungaray-k zuzendua. Burrunka, Zirtzilak, ASCA, eta Afrika Damboko dantzariekin. Pierre Sangla (musika zuzendaritza) – Laurent Harignordoquy (koreografiak) – Aritz Bidegain (Toberak) – bertsuak. Aurkezpena otsailaren 27an, ostegun gizenez (berriz ekarritako ohidura).

## ● Euskal dantza

### **Iparraldeko Dantzarien Biltzarra federazioa**

Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak antolatu usaiako ekitaldietaz gain, egitasmo berria dauka.

### **Sentsibilizazio moduluok eta kurtsoak**

- Ø **Euskal dantza kurtsoak astero Erberuako dantza taldearentzat** – Agnès Pérez erakaslearekin
- Ø **Euskal dantza sentsibilizazio ibilbideak** sei ikastetxeekin. Erakasleak : Johane Etxebest, José Cazaubon, Beñat Zintzo Garmendia, Iñaki Serrada.
- Ø **« Euskal dantza » modulu baten sortzea**, hezkuntza artistikoa eskola denboran (2014 / 2015 ikasturterako).

### **Ikastaldiak :**

- Ø **Urtarrilaren 18an : Dantzari ttiki ekitaldiarentzat** (erakaslea : Amadeo Arretxea) : 12 partehartzaile.
- Ø **Azaroaren 22an eta 23an : : Arratiako jota**, Euskal Dantzarien Biltzarra-ren partaidetzarekin (erakasleak : Mikel Goitia, Pedro Ignacio Artetxe eta Ainara Artetxe) : 45 partehartzaile.
- Ø **Abenduaren 10ean :**  
« Euskal dantzaren eguna », Iparraldeko Dantzarien Biltzarra-ko Johane Etxebest erakaslearekin. Egun hori CANOPE eta Euskal kultur erakundearearekin partaidetzan antolatua izan da. Partehartzaileak : Hezkunde nazionaleko erakasleak.

### **Ikusgarriak**

- Ø Urtarrilaren 25ean, Luhusoko Harri Xuri gelan  
« Txilintxori » - Ürrats Berriak : 288 ikusle
- Ø Maiatzaren 8an, "Dantzari ttiki" Hendaian, Akelarre taldearen laguntzarekin.  
1 500 dantzari, 1 890 ikusle
- Ø Maiatzaren 10ean, Luhusoko Harri Xuri gelan  
« Leinuruak » - Leinua : 322 ikusle
- Ø Ekainaren 22an, Luhusoko Harri Xuri gelan  
« Haizeari » - Getaria : 316 ikusle
- Ø Abenduaren 13an, Luhusoko Harri Xuri gelan.  
« 0927.Zelda » - Zarena Zarelako

## Dantzaldiak

Iparraldeko Dantzarien Biltzarra-k hiru dantzaldi antolatu ditu :

- ∅ Otsailaren 15ean, Luhusoko Harri Xuri gelan  
Erakasleak : Nadine eta Roger Goyhénèche, Alain Martineau  
Trikili Trakala taldeak alaiturik. 45 partehartzaile
  
- ∅ Apirilaren 19an, Luhusoko Harri Xuri gelan  
Erakaslea : Maryvonne Rump  
Klipetaklop taldeak animaturik : 50 partehartzaile
  
- ∅ Azaroaren 29an, Luhusoko Harri Xuri gelan  
Alain Martineau-k eramanik,  
Trikili Trakala taldeak alaiturik : 18 partehartzaile

### ● « Iparra Hegoa » ekitaldia

**Martxoaren 7tik apirilaren 6ra Seguran (Gipuzkoa) eta Pausun (Lapurdi)**

#### **Iparra Hegoa elkarte**

Ekitaldiak : « Euskal nortasunaz » erakusketa martxoaren 17tik 23ra, martxoaren 7an : Aire ahizpak eta Mikel Markez-ekin afaria, martxoaren 13an : « Orobil borobila » Kiribil elkartearen ikuskizuna, martxoaren 21ean : H-Eden taldearen kontzertua, martxoaren 28an ; Aire Ahizpen kantaldia, apirilaren 3an : bertsu poteoa Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Kuxkuxtu taldearekin, apirilaren 4an : XIBA-rekin animazioa eta Xutik taldearen kontzertua, apirilaren 5ean : Amaren Alabak-en kontzertua eta apirilaren 6an : Segurako trikitilariak eta Baigorriko gaiteroekin animazioa.

### ● « Haizebegi »

**“Musikaren munduak” film festibala, Baionan**

**Institut de Recherche sur les Musiques du Monde (IRMM) elkarte**

2014ko irailaren 18tik 20ra : « 01.01 » ikusgarri berriaren bapateko lanaren aurkezpenerako parte hartzea, Elirale Konpainiaren eskutik.

### ● Mintzaldiak Isturitzen

**Isturitz Oxocelhaya elkarte**

Bi mintzaldien muntatzen laguntzea : lehena goi paleolitoko kulturei buruz Joëlle Darricau-ren eskutik, bestea mundu desberdinen arteko harremanetaz Jean Clottes-ekin.

### ● Erakusketa Ziburun

**Itsas Begia elkarte**

Zokoako gotorlekuaren historia aurkezten duen erakusketa elebidun (euskara-frantsesa) baten ekoizpena laguntzea.

● **« Emazte artea » Donibane-Garazin**

**Martxoaren 3tik 30era**

**Itzal Aktiboa elkarte**

Euskal Herrian lan egiten duten 7 emazte margolariren erakusketa.

Margolariak : Irma Azpitarte Mandiola, Béatrice D., Josette Dacosta, Laura Delgado Guillén, Ana Izura, Jacqueline Lebrun, Amaia Molinet Drona eta Silvia Delgado Alvarez kubatarraren parte hartze bereziarekin.

● **« Gazte Artea »**

**Itzal Aktiboa elkarte**

Parte hartzea «GazteArtea » lehiaketan, sorkuntza artistiko garaikidearen garatzeko xedearekin. Deialdiaren abiatzea 2014an ; sarien ematea eta erakusketa 2015ean, Donibane Garazin.

● **4. Black & Basque festibala**

**JFB Lagunak elkarte**

**Baiona – 2014ko irailaren 12, 13 eta 14ean**

Black & Basque festibalaren 4. edizioaren programazioari laguntza Damba taldearentzat, Kakots kolektiboarentzat, Maika Etxekopar kantariarentzat baita ere Jose Luis Zumeta, Gonzalo Etxeberria, Patxi Laskarai artisten obren erakusketentzat.

● **Euskal antzerkiaren hedapena Makean**

**Jostakin elkarte**

18 eta 25 urte arteko gazteek euskal antzezlan bat landu dute.

● **« Hinka » ikusgarri berriarendako laguntza**

**Kideka elkarte**

Ikusgarri honek historiako gertakaria du oinarri, hain zuzen 1615ean, Islandiako lurretan, euskal arrantzale batzuen hiltzea.

Idazlanaren sorkuntza : Itxaro Borda – Musikariak : Benoît Lamerain, Maitena Duhalde, Mathieu Haramboure.

● **« Baiu »**

**Kiribil elkarte**

« BAIU » haur (6-8 urte) ikusgarri sorkuntzan parte hartzea.

Egonaldiak Senpere, Gasteiz, Ezpeleta eta Garazin.

Lehen ikusgarria : 2015eko martxoaren 3an eta 5ean – Garazi.

● **« Baküna Show » sorkuntza**

**Konpany Beritza elkarte**

Johañe Etxebestek pentsatutako Xiberutar balet garaikideari laguntza. Mauleko Jai Alai–ean aurkeztua azaroaren 7 eta 8an.

Xiberoko dantza eskoletarik jinik diren dantzariak asmatu duten ikusgarria da, Edu Muruamendiaraz koreografoaren laguntzarekin egin dena. Dantza baleta 4 partetan zatitua da ; honen bidez, Xibero moderno eta ausart baten sinbolo izan nahi du.

● **« Mokofina » haur antzerki sorkuntzari laguntza**

**Lagunarte elkarte**

« Mokofina » sorkuntza 18 hilabete eta 5 urte arteko haurrei zuzendua da jostatzeko, plazerra hartzeko, miazteko eta adierazteko helburuak segituz. Ahoa musika tresna irringarriena bilakatzen da, desberdinena, zehatzena, eskugarriena, publikotik ahal bezain hurbila.

● **Euskal kultura Pauen**

**Lagunt eta Maita elkarte**

Euskal kulturaren balorapena Paueko euskal diasporan (erakusketa, dantza eta kantu mintegi, etabar), eta trukaketa artistikoak, euskal eta irlandiar musikariekin, besteak beste Kilkenny festibalaren kari agorrilan.

● **Euskal mintzaldiak Senperen**

**Lapurdi 1609 elkarte**

Mintzaldiak : Xabier Itzainarekin apirilaren 4an eta Eneko Bidegain idazlearekin abenduaren 4an Senperen gai hunen inguruan « Lehen munduko gerra eta Euskal Herria ».

● **« Lapurtarren Biltzarra »**

**Lapurtarren Biltzarra elkarte**

**Kultura hedapenarentzat laguntza**

Irailaren 28an, Uztaritzen : karro ibilaldia, bertsularien animazioa, antzerkia, dantza. Ertizka, Txarangaita eta Uztaritzeko txarangen musika. Aguxtin Alkhat eta Zeze Miège taldeen kontzertuak.

● **« Leinuruak » dantza sorkuntza**

**Leinua elkarte**

Dantza sorkuntza hortan, haien funtsa ateratzeko asmoz, euskal koreografia tradizional zenbait ikusgai dira, simetria eta isla gidalero dituzten bost sekuentziatan. Karia horretara, Juan Antonio Urbeltz eta Philippe Oyhambururen (Etorki) pieza enblematiko batzuk ematen dira, baita Leinuaren erreperatorioko zati zenbait, eta makil dantza sorkuntza bat. Bost sekuentzia koreografikoekin duten loturarengatik hautatu bost kantu herrikoiekin hasten da atal bakoitza. Aurkezpena : 2014ko maiatzaren 10a, Harri Xuri gelan Luhuson.

● **« Les films de l'air »**

Joël Merah-ren musika sorkuntza, Eugène Green idazlearen dokumentalakari.

● « Paper Puskak » antzezlanaren sorkuntza.

**Les Trois Chemins elkarte**

Mylène Fondecave-ek idatzitako « Bouts de papier » testuan oinarritua, eta Paulo Arzelusek euskaratua. Antzerki fantasia 7 urtetik goitiko haurrentzat. Taula zuzendaritza : Christine Pénicou. Antzerkilariak : Christine Pénicou eta Ixabel Millet. Eszenografia : Philippe Maisounabe. Musikak eta soinu sortzailea : Patxi Hernando. Grafismoa : Hodei Hernando. Orraztatzailea : Christophe Pavia. Aurkezpena : 2015eko udazkenean.

● Euskal dantza eta kantu ikastaldiak

**Les Voix de la Terre elkarte**

Tailerra Kanbon iragan da, agorrilaren 2tik 8ra, Arraga elkartearen partaidetzarekin.

● Euskal artisten programazioari laguntza « Le Petit Bouquinville » gertakariaren kariatara

**Libre Plume elkarte**

« Petit Bouquinville » ekitaldiak gazteendako literaturan poesiaren presentzia argitan emateko xedea du. Euskal artisten programazioari laguntza : Amaia Hennebutte idazlearekin topaketa eta tailerra. Idazkera tailerrak antolatuak izan dira baita ere Uda Leku, Oihana ikastola eta Malegarie eskolaren artean, martxoaren 12,13,14 eta 15ean Baionan.

● Euskarazko literatura eta sorkuntzaren laguntza

**Maiatz elkarte**

30. solasaldien antolaketa Baionako Euskal Museoan. Maiatzaren 13 eta 14an : Liburu aurkezpenak : Maiatz 58 aldizkaria, Xipri Arbelbide-ren « Gogoetak », Antton Luku-ren « Libertitzeaz », « Memoria historiaz » gaiaren inguruko mahain ingurua (Emilio Lopez Adan, Paulo Iztueta eta Eric Dicharry-ekin); Itxaro Bordaren « Ogella Line » poema errezitaldiak (Mylène Charrier, Xabi Strubel, Bruno Aguerre eta Maika Etchecopar-ekin)

Bestalde Maiatz aldizkariaren 58 eta 59. aleak argitaratuak izan dira eta elkarteak liburu azoka ezberdinetan parte hartu du (Sara, Durango, Ortese...)

● “Nundik Nora” mintzaldi-emanaldiaren hedapenari laguntza.

**Maritzuli elkarte**

- ✓ Hendaian: ekainaren 20an, Mendi Zolan gelan
- ✓ Hondarribian (Gipuzkoa): uztailaren 8an Itsas Etxe gelan

● San Martineko Ezpata Dantza sorkuntza

**Maritzuli elkarte**

90 bat dantzari eta musikari bilduko dituen kaleko sorkuntza honek urtero ohizko hitzordu bat izateko asmoa du.

● **Hazparneko Marmau mendi-gunearen antolaketa, desmartxa artistiko baten karietara Marmau elkarte**

Egitasmoari buruzko deialdi baten antolakuntza. Zizelkaritza lanak, obra desberdinak, naturari lotuak. 2014ko maiatzaren 1etik irailaren 12ra.

● **Kabaretea, « Mintzalasai » gertakari kari**

**Mintzalasai elkarte**

Irailaren 27an, Biarritzeko Atabal gelan, Kabarete gaualdiaren ko-antolaketa eta programaziorako laguntza : gaurko euskal sorkuntzaren aurkezpen gaualdia afari baten inguruan.

Musika: Nahia Zubeldia eta Manu Matthys ( + Alberto- sorkuntza grafikoak) | Birle

Magia : NULOT (Txoborro et Tor)

Antzerkia : Maite Dugulako

Bertsoa : Eneritz Zabaleta eta Ortzi Hegoas

Dantza : Neo Kotilun (KSI taldea)

● **“Lloba” sorkuntzaren hedapena**

**Moï moï kolektiboa**

Hogeita deialdiaren sariduna « Lloba » proiektua izan da, musika elektronikoa, bideoa, marrazkia eta koreografia uztartzen dituen. IBOAT gunean (Bordale), 2014ko uztailaren 13an aurkeztua izan den ikusgarriaren hedapenerako zuzendua da laguntza.

● **Balea Pop festibala**

**Moï Moï kolektiboa**

**Bidarte – 2014ko agorrilaren 7a**

Euskal mitologia berrinterpretatzen duen sorkuntza plastikoari eta soinudunari laguntza. Manon Boulart (plastikaria), Manu Matthys eta Peio Erramouspé (musika elektro konpositoreak) sortzaileek obra Balea Pop festibalean aurkeztu dute.

● **« Klownen ondoan izate »**

**Les Moissons Clowns elkarte**

**Saint Antoine zahar etxea - Atarratze**

Les Moissons Clowns elkarteko klown bikote batek sei bisita egin ditu euskaraz (otsailak 27, apirilak 24, ekainak 18, agorrilak 28, urriak 23, abenduak 18) Atarratzeko zahar etxeko adineko pertsoneri.

St Antoine EHPAD SSR egitura kultur ekitaldi horren ko-ekoizlea da ere bai.

● **“Pastore Lore” gertakariaren 11. edizioaren antolaketaren laguntza.**

**Pastore Lore elkarte**

**Urriaren 12an**

Egun osoan zehar, Azkainen, euskal kultura eta artzaingo mozkinen koloreak dakarzkien Larrungo Lorea ohoratzen da. Lurraldeko ondarearen aberastasuna argitan ematen duen gertakaria.

Euskal dantza emanaldiak, joaldunen desfileak, Lokarri taldearen kantaldia.



● « Roger Idiart gurekin » ikuskizunaren sorkuntza

**Azkaingo turismo bulegoa**

2014ko agorrilaren 9 eta 10ean, anitz euskal artisten parte hartzearekin (Begiz Begi, Hinka, Hiru Soinu, Naia Robles, Michel Etchecopar eta Mathieu Mendizabal, Kantiruki, Niko Etxart, Jean Bordaxar eta bere taldea, Jean-Louis Aramburu, Nicolas Urruty eta Eric Alcebe, Maddi Oyhenart, Pierre Larrandaburu, Larrun Kanta...). Bideo bat ekoiztua izan da.

● **Sarako 31. Euskal idazleen biltzarraren antolaketa**

**Apirilaren 21ean. Polikiroldegian**

**Sarako turismo bulegoa elkarte**

Eusko Ikaskuntzaren beken banaketa, Euskaltzaindiaren liburuen aurkezpena, idazle aurkezpenak... Aurtengo saristatuak: Manex Pagola, Erramun Bachoc eta Patrice Roulleau.

● **Ote Lore elkarteak 30 urte**

**Ote Lore elkarte**

Elkartearen urtemuga ospatzeko Larresoron egin ekitaldiei laguntza : Harrizko Zubiko besta Anje Duhalde kantaldiarekin herriko gelan uztailaren 6an ; Xilaba kari bertsu txapelketako final-erdiaren antolaketa herriko gelan urriaren 26an; Bertsu-afaria Jon Maia eta Amets Arzallusekin Aldaburua ostatuan abenduaren 5ean.

● « Jokoz kanpo » ekitaldirako laguntza,

**Ezpeletan, 2014ko ekainaren 7an.**

**Pinpulka elkarte**

Errenteriako Kukai konpainiaren « Gelajauziak » emanaldirako laguntza, programatua izan dena karrikako arteei dedikatua den egun horretan.

● **Euskal artista egonaldia eta kontzertuari laguntza**

**Quartier Latin elkarte**

Nahia Zubeldia eta Manu Matthys artisten egonaldiari laguntza : azaroaren 16, 17 eta 21ean arratsalde. Luna Negra aretoan loaldi eta apairuak iragan dira. Azaroaren 21ean, arrastian, egonaldiaren kontzertu aurkezpena.

● « Ronde » sorkuntzari laguntza

**Rouge Elea elkarte**

Ikusgarriaren euskal bertsiarako zuzendua da laguntza. Zirkoa, dantza, musika, objektuak eta irudia uztartzen dituen sorkuntza horrek 7 urtetik gorako publikoari zuendua da. Oiartzunen uztailaren 6an, Biarritzen urri-azaroan eta Hego Euskal Herriko Herri Elkargoan 2014/2015 denboraldian aurkeztua izan da.

## ● « Kultur trukaketa Trikitilariekin »

### **Soinu ttiki elkarte**

Trikitilarien elgarretaratzea Ezpeletan, eskolekin trukaketak, animazioak eta kontzertuak.

## ● Euskal kultura Heletan

### **Traboules elkarte**

Euskal artisten hedapena Heletako Itsasoan : Petti, Agustin Alkhat, Jabier Muguruza.

Poteo Atipikoaren antolaketa Heletan irailaren 26tik 28ra : irailaren 27an : “Kalakan” taldearen kontzertua, irailaren 28an, Tolosako « Mari eta Sugaar” euskal antzerkia.

## ● « Xoriek » dantza sorkuntza

### **Traversée elkarte**

Bikote pieza hau, aspaldiko lagunak diren bi jokalarien arteko solasaldiaz eta osagarritasunaz elikatzen da. Euskal kulturarekin duten harremanari buruzko galdezketa bat egiten dute. Bestalde, pieza, xoriak (bereziki xorien hegaldiak baita harrapariena) aipatzen dituzten iturri ezberdinetan oinarritzen dira: euskal kantuak, testu erranak eta soinuak.

Antzezpena : Mizel Théret (dantza) , Beñat Achiary (kantua)

Dramaturgia eta taula zuzendaritzarako laguntza : Johanna Etcheverry

Iraupena : 45min/60min - Estreinaldia : 2014ko martxoan

## ● Euskal kantuak Baionako karrketan

### **Tuntuna elkarte**

Uztailaren 24an : kantaldia Maiana Garat, Juliette Alfonso, Lucile Dorado-rekin

Uztailaren 25ean : Baionan kantuz « Zort’Ziburu » taldearekin

Uztailaren 26an : Txistulariak Baionako karrketan

Uztailaren 27an : Kantaldia Aire Ahizpak taldearekin.

## ● Euskarazko zine hamabostaldia irakaskuntzako hiru saretako ikasleentzat

### **Uda Leku elkarte**

Filmak : « Marina» (4 - 6 urte) eta « Luke eta Lucy » (7 - 11 urte), urtarrilean aurkeztuak izan dira, zinegela hauetan : Mauleko « Maule Baitha », Donibane-Garaziko « Le Vauban », Donapaleuko « Saint-Louis », Hazparneko « Haritz Barne », Baionako « L’Atalante », Donibane Lohizuneko « Le Select », Urruñako « Itsas mendi », Hendaiaiko « Les Variétés, Biarritzeko « Le Royal » eta Kanboko « L’Aiglon ».

## ● **Uztaritzeko herriaz eta bere ondareaz mintzaldi zikloa eta kultura ekitaldien antolaketa** **Ur Begi elkarte**

Ekitaldiak

Otsailaren 9a : Heraitzeko kapelan kontzertua : Makeako eta Lekorneko kantariak, Ezpeletako Soinu Ttiki, triki eta biolinak, Julie Rouault kantaria

Irailaren 6a : Uztarizen : arte artesauen eguna

Mintzaldi zikloa :

- Otsailaren 14a : « Usoen migrazioa » Jacques Luquet-en eskutik
- Otsailaren 21a : « Euskaldunen emigrazioa » Euskal Argentina-ko Monika Legartoren eskutik
- Otsailaren 28a : « Euskaldunen irria » Eric Dicharry-ren eskutik
- Martxoaren 7a : « Uztaritze, bere etxeak eta biztanleak » Michel Duhart-en eskutik.

## ● **Usopop # 5 festibala**

**Uso Pop elkarte**

**Saran – 2014ko maiatzaren 31n**

Bostgarren Usopop festibalaren programazioari laguntza, Musikolore, Anari/Aguxtin Alkhat eta Moby Dick artisten emanaldientzat. Aurtengo edizioa Lizarrietako lepoko Hiruetako Erreka gunean iragan da.

## ● « Xarnegu Eguna » festibala

**Xarnegu eguna elkarte**

Ezcurra/Beheretche/Indaburu hirukotearen kontzertua – Arankun, maiatzaren 1ean ;

Oskar Alegriaren « Hitzenea » erakusketaren ezartzea – apirilaren 29tik maiatzaren 3a arte.

## ● « Alienor Trajeria » pastorala

**Xiberoko Zohardia elkarte**

Jean Michel Bedaxagar-ek idatzitako pastorala Alienor d'Aquitaine-ren biziari buruz. 18 emazteek nagusiki interpretatua, Urdiñarbeko dantzariak lagundurik. Xiberuko Zohardiak antolatu duen Xiberuko kantari eta musikarien topaketaren 20. urteurrena kari.

Aurkezpenak : 2014ko apirilaren 30ean eta maiatzaren 4an Maulen.

● « Otsail ostegunak » deitu saileko mintzaldien antolaketari laguntza eta « Asmoa eta Jakintza » gogoeta dinamika Donapaleun

**Zabalik elkarteak**

**Otsailaren 6tik 28ra**

Otsail ostegunak :

- ✓ Otsailaren 6a : Eñaut Etxamendi-ren kantagintza
- ✓ Otsailaren 13a : *Zero hondarkinetara nola hel ?* Hernaniko Zero Zabor taldeko Pello Zubiria eta Malores Etxeberria-rekin.
- ✓ Otsailaren 20a : *FAGOR Etxetresnak erorita, zertan dira kooperatibak ?* Mondragon taldeko kooperatiba bateko partzuer diren René Harluxet eta Ximun Lacroix-ekin.
- ✓ Otsailaren 27a : *Zergatik ez ?* Euskararen erabilera soziala bultzatzeko tailerra, Topagunea euskara elkarten federakuntzak proposaturik.

● **Ozeanoari buruzko ikusgarriaren hedapena**

**Zaldain elkarteak**

Zaldain elkarteak ekoiztu ikusgarria Xiberuan 5 aldiz aurkeztua izan da.

● « 0927. zelda » dantza ikusgarriaren sorkuntza

**Zarena Zarelako elkarteak**

Dantzaren bitartez (izan dadin ohikoa ala garaikidea), presondegiaren unibertsoa aipatzen duen dantza sorkuntza. Koreografiak : Pascale Lascano, Béatrice Aspiro, Fabian Thomé. Dantza taldea, 8 neskek eta 2 mutikoek osatzen dute.

Sorkuntzaren aurkezpena: 2014ko abenduaren 13an, Luhusoko Harri Xuri gelan.

● **Euskarazko antzerkiaren hedapena**

**Zortziko elkarteak**

Iguzki Lore elkartearen « Hazparneko anderea » antzerkia hedatu du Zortziko elkarteak.

● « Intxaurmendi kantuz »

**Zubia elkarteak**

Auzo arteko Euskal joko desafioa GAIA elkarteak antolaturik.

Pintxo lehiaketa eta afaria Saltoka taldeak eta Barhenne anaiek animaturik. The Lookers taldearen kontzertua.

\*\*\*\*

**Diskografiari buruzko dirulaguntzak**

- Maialen Errotabehere "Biluzik" (Agorila) ;
- "Animalien ihauteriak" (ZTK)

## 4 | Informatu, jendarteratu, komunikatu

### 4.1 | Publikoak lagundu beren informazio bilaketetan

#### Informazio zaintza

EKEN informazio zaintzaz arduratzen den taldeak bilaketa eta zainketa lan jarraikia egiten du sare sozialetan, kultura aktualitatea segitzeko (deialdiak, ikerketak, formakuntzak...). Lan hori ipar Euskal Herri mailan, baina ere hego Euskal Herri eta Europa mailan eramaten da.

Aipatzekoa da ere, zaintza profesional horri esker Euskal kultur erakundeko lantaldearen lanbide-ezagutzak ere aberasten direla, lan hori egituraren lan-alor ezberdinetako bilakaera estrategikoak aurreikusteko lagungarri delarik.

Euskal kultur erakundeak 2012an hasi administrazio eta zuzenbide alorreko informazio zaintza jarraitu eta azkartu egin du, horren helburuak hauek direlarik :

#### Euskal artista eta elkarteentzat :

- 1901eko legepean diren elkarteentzat baliagarriak izan daitezkeen iturrien xerkatzea, izan fiskalitate, legedi edo antolaketa mailan ;
- Finantziario aukeren aurkitzea, kultura egitasmoen gauzatzeko (laguntzen gida, deialdiak), bai eta hedapenerako ere ;
- Kultura elkarteak edo euskal artistak interesatzen ahal dituzten formakuntza eskaintzak biltzea (Euskal Herrian eta Frantzian), bai eta Euskal Herriko lan eta ikastaldi eskaintzak ere.

#### Programatzaile publiko eta pribatuentzat :

- Ipar Euskal Herriko kultura eragileen eta elkarten (erakundeak, elkarteak, artistak, pertsona lagungarriak, etabar) errepertorioa ;
- Ipar Euskal Herriko eskaintza artistikoaren eta kulturalaren agenda (erakusketak, ikusgarriak, animazioak, mintzaldiak, etabar) ;

Bilketa lan horren emaitza [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko “Kultura eragileak” atalan agertzen da sailkaturik. Tokiko kultura biziaren eragileei bereziki zuzendua den egiazko lanabes-kutxa dugu hau.

Bildutako informazioa espazio horretako atal desberdinetan aurki daiteke, hots :

- Profesionalen albiste haria : kultura eragileei zuzentzen diren albiste aukeratu batzu (deialdiak, lehiaketak, formakuntzak, lan eskaintzak...) boletin baten bidez hedatzen direnak, astero eta hilabetean behin (700 harpidetu baino gehiago) ;
- Kultura eragileen errepertorioa (gaika sailkatuak diren festibalen zerrenda batekin, bai eta ikusgarri gelen zerrendarekin ere);
- Ipar Euskal Herriko sorkuntzen katalogoa ;
- Kultura biziaren behatokia : euskal kulturaren agenda eta Iparraldeko kultura eragileak eta toki artistikoak herrira eta herri elkargoka sailkatuak (agenda & albisteen artxiboak) ;
- Formakuntzen eta topaketen txostena : EKEk kultura elkarteentzat antolatu jardunaldiak, tailer tematikoei eta formakuntzei buruzko dokumentuak biltzen ditu.

Paraleloki, euskal kulturari mugatzen ez den webografia profesional generalista bat txertatua izan da [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko “Kultura eragileak” atalean. Sailka (ikusgarrigintza, musika, arteak...) eta gai transbertsalen arabera (lanbideak eta formakuntzak, kudeaketa, fiskalitatea eta zuzenbidea, kultura politikak...) sailkatuak diren lotura profesionalen aurkitegi bat da.

“Liburutegi/mediatekei zuzendu kultura aktibitateen sareko gida” bat sortua izan da ere irakurketa publikoko eragileentzat. “Sorkuntzen katalogoa”-ren osagarri izan daiteke.

Horrela, programatzaileek bi tresna baliagarri badituzte, mintzalariak edo euskal ekoizpen artistiko eta kulturalak bilatzen dituztelarik.

Azkenean, beti [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko “Kultura eragileak” atalean, “Heziketa artistikoa eta kulturala gazteei begira - Baliabideak” izeneko sartze bat sortu dugu. Bertan, euskal kulturaren inguruko heziketa egitasmoak eskaini nahi dituzten kultura eragile guzientzat lagungarri izan daitezkeen dokumentuak biltzen dira (euskal dantzari eta bere ingurumenari buruzko sentsibilisazio programak, “Euskal kultura” alorreko mintzalarien errepertorioa, etab).

## **Kultura biziaren behatzea**

Kultura eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri ezberdinetako prentsa bilduma baten laguntzaz, Euskal kultur erakundeak egunero ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...). Agenda horretaz gain, aktualitateari buruzko lan berezi bat egiten du ere, erregulariki eguneratzen den albiste hari baten bidez. Paraleloki, zaintza lan horrek, euskal kultura eragileen, elkarteen eta egituren errepertorio publikoa eguneraturik mantentzeko aukera eskaintzen du.

Informazio guzi horiek herrika geolokalizatuak dira : horrela, bildutako datuei esker, urteko kultura ekitaldiei buruzko estatistika batzuk atera daitezke, herri elkargoka, gaika edo denboraldika. Aipaturiko lan hori, euskal kultura biziaren behatoki baten lana da. [www.eke.eus](http://www.eke.eus) web atariko atal batek herri elkargoka eta herrika sailkatu datuen ikusteko parada eskaintzen du.

Euskal kultur erakundearen espertisa misioa ere lan horretan oinarritzen ahal da , lurralde elkargoek (Eskualdeak, Departamenduak, Herri Elkargoek edo herriek) EKeri egin obragintza galderen kariatara.

## **2014an**

- 1202 gertakari sartuak izan dira [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko agendan
- Horietan 995 izan dira Lapurdin, Baxe-Nafarroan eta Xiberuan iragan gertakariei lotuak. Gaineratekoak, Hego Euskal Herrian edo Euskal Herritik kanpo iragan gertakariei lotuak izan dira.

## Jakintza entziklopediaren iturrien sailkatzea

Publiko zabala informatzea baliabide ezberdinak sailkatuz, kultura, hizkuntza eta ondare gai nagusiak sakontzeko aukera eskainiz (ondare material eta inmateriala, euskara, bertularitza, musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak, etab). Hori da EKEk finkatu helburua, oinarrizko jakintzen erreferentzietako iturriak sailkatuz (alde historikoak, soziologikoak, teknikoak, etab).

Konkretuki, sailkatze horren egiteko, ezinbesteko baliabide-iturri nagusiak gaika zerrendatuak dira. Bestalde, gaikako webografiak (web loturen zerrendak) proposatuak dira, aktualitatearen arabera erregulariki eguneratuak direnak. Bestalde, gaikako webografiak (web loturen zerrendak) proposatuak dira, aktualitatearen arabera erregulariki eguneratuak direnak ere. Zaintza lan horren emaitza [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko atal tematikoetatik kontsultagarriak dira (dantza, musika, bertularitza).

## 4.2 | Hedapen tresnak ekoiztu eta kudeatu

### Euskal kultur erakundearen internet atariaren kudeaketa eta eguneraketa

#### 2014ko estatistikak

- Bisitak : 264 172 (2013an baino %11,5a gehiago)
- Bisita bakarrak : 185 941 (2013an baino %15,6a gehiago)
- Ikusitako orriak : 892 182 (2013an baino %2,76a gehiago)

Zaintza taldeak bildu informazioen hedatzeko, Euskal kultur erakundearen webguneak berebizikiko garrantzia estrategikoa badauka. EKEren komunikazio eta mediazio politikaren oinarria da.

Atariari dagokionez, 2014an lehentasuna emana izan zaio datuen kontserbazioari eta eskuragarritasunari, bai eta gai tematikoen eguneraketari.

#### Aterpetzea

Datuen artxibatzeari eta eskuragarritasunari dagokionez, web atariaren aterpetzea Bidarteko Izarbel Teknopolan kokatzen den Aditu data center-aren gain gelditzen da orain. Aldaketa horren ondotik, webgunearen editatzaileek eta bisitariak erosoago nabiga dezakete. Gainera, 10 urtez sareratuak izan diren edukien eguneroko salbatzeak hobeki bermatuak dira.

#### Ergonomia - Mugikortasuna

Datuen eskuragarritasunarekin segitzeko, ergonomiaren aldetik, antolatega berezi batzu eginak izan dira webgunearen interfazean telefono eta tableta gaineko irakurketa errazteko asmoz. Karia hortara, mugikortasun egoeran baliagarriak diren atalen afixatzea lehenetsia izan da (agenda, albistea, eragileen errepertorioa...)

## .EUS domeinua

Aipatzekoa da ere 2014an Euskal kultur erakundea .EUS domeinuaren aitzindarietarik bat izan dela. EUS, euskararen eta euskal kulturaren inguruko komunitatearen internet domeinua da. Horrela, 2014ko irailaz geroz, [www.eke.eus](http://www.eke.eus) da Euskal kultur erakundearen webgunearen helbide ofiziala.

## Kultura gaiak

### **“Euskal kultura” PDF liburuxkak**

Exepare Institutuarekin daukan partaidetza baten kariatara, EKEk parte hartu du euskal kulturaren ezagutarazteko eginak diren PDF formatuko bi liburuxken argitalpenean, euskaraz, frantsesez eta ingelesez. Exepare Institutuaren “Euskal kultura” bilduma, erreferentziazko 12 gairi buruzko sintesiak eskaintzen ditu (euskara, musika, dantza, literatura, zinema, bertsularitza...). Helburua da euskal kulturaren inguruko informazio eguneratua eta ilustratua ahal bezain bat jenderi helaraztea. 2014an argitaratuak izan diren eta EKEren webgunetik deskarga daitezken liburuxkak :

#### *Euskal literatura XX. mendean*

Kattalin Totorikak itzuli du euskaratik frantsesera Estibalitz Ezkerra kazetariak egin sintesia hori.

#### *Euskal musika klasikoa*

Kattalin Totorikak itzuli du euskaratik frantsesera Euskal Herriko Unibertsitateko musikaren historia erakaslea den Karlos Sánchez Ekiza-ren sintesia hori.

### **Euskal kulturaren inguruko elkarrizketak**

Xan Aire-k egin elkarrizketa hauek bi hizkuntzatan argitaratuak izan dira EKEren webgunean. Helburua da kultura eragileei hitza ematea EKEren webgunean.

2014ko elkarrizketak :

- Odei Barroso
- Denis Laborde
- Maika Etxekopar
- Katixa Dolhare
- Joseba Aurkenerena
- Jean-Marie Guezala
- Miren Artetxe
- JohaÑe Etxebest
- Maialen Errotabehere

### **Ekarpenak**

Euskal kultur erakundearen nahia da, Euskal Herriko biztanleek parte har dezaten beren kulturaren ezagutarazteko tresnen sortzean, bereziki [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariaren bitartez. Karia hortara, Aipagarriak dira adibidez, sarean ezarriak izan diren Joseph Maris musikariaren partizioak (400 bat dokumentu urririk publikoaren esku utziak direnak).



[www.irudimena.com](http://www.irudimena.com) sorkuntza lehiaketaren antolaketa karia hortara kokatzen da ere.

Bestalde, aurten ere EKE-k sustengu teknikoak ekarri dio “Olentzeroren lagunak” elkarteari, Ipar Euskal Herriko Olentzerori buruzko informazioak eta artxibo dokumentuak [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko orri berezi batean publikatuak izan daitezen ([www.olentzero.eke.eus](http://www.olentzero.eke.eus)).

## **Erakusketa ibiltarien kudeaketa eta ekoizpena**

### **EKEren erakusketen ibilbideak**

“Itsasturiak - Les gens de la mer” erakusketaren ibilbidea

- Zarautz – 2014ko otsailaren 6tik martxoaren 30era - Sanz-Enea liburutegia

“Herri ixilean” erakusketaren ibilbidea - Jon Cazenave-ren argazkiak

- Cenon – 2014ko martxoaren 4tik 28ra - Le Rocher de Palmer

“Hitz-Enea” erakusketaren ibilbidea - Oskar Alegria-ren argazkiak

- Bardoze – 2014ko apirilaren 26tik maiatzaren 3ra - Salle du Foyer
- Donibane Garazi – 2014ko maiatzaren 5etik ekainaren 8ra – Apezpikuen presondegia
- Paue – 2014ko irailaren 1etik 15era – Euskal Etxea

“Kantuketan ” ukipen pantailen ibilaldia

- Biarritz – 2014ko martxoaren 1etik 31ra – Mediatekako sartzia
- Bilbo – 2014ko maiatzaren 8tik 10era - Alhóndiga.  
“Euskal kantuz” mintzaldia Pantxoa Etchegoin-ekin, Euskal kantua Bilboko EXIB musika azokan, maiatzaren 9an.
- Urruña – 2014ko azaroaren 10etik abenduaren 12ra – Posta gela

“Olentzero” erakusketaren ibilaldia

- Irisarri – 2014ko azaroaren 20tik abenduaren 20ra - Mediateka - Ospitalea
- Hendaia – 2014ko abenduaren 9tik 27ra - Mediateka
- Hazparne – 2014ko abenduaren 3tik 31ra – Mediateka

## **Euskal dantzari buruzko erakusketa ibiltari baten sortzea**

Dantzak euskal nortasuna handizki adierazten du. Atzo eta egun, ez da arras arrazoi berdinentzat dantzatzeko. Orain dantzari esker, jende ezberdinek sustraiak atzeman ditza-kete eta mota askotako harremanak ukan.

Nonahi edo noiznahi emana izan dadin (norbera dantzari edo dantza talde batean, kanpoan edo barnean, molde tradizionalen edo gaurkotuan) , dantza etengabe berritzen ari da.

Euskal dantza denbora berean teknikoa eta herrikoa da, bat-batekoa eta kulturala. Arketipoetan sartzen ez den jendarte baten aniztasuna erakusten du.

Euskal kultur erakundeak 2015eko udako ekoiztuko duen erakusketa ibiltariaren xedea, kultura alor hori publiko zabalari hobeki ezagutaraztea da.

Zabalkunde tresna hori multimediak eskaintzen dituen aukeretan oinarrituko da. Horrela, tokikoa baina ere unibertsala den jardura horren aurpegi sozial, historiko eta artistikoak erakutsiko ditu euskarri berri eta dokumentu arraroak agertuz. Azken finean, euskal dantzen ikasteko edota emateko gogoia piztu behar luke erakusketak.

Azpimarratzekoa da “Soka” erakusketa proiektua euskal dantzaren mediazio eta transmisio proiektu orokor batean kokatzen dela, 2015-2016 urteetan transmedia dispositibo ezberdinen bitartez gauzatuko dena. Publikoari gaia sakontzeko beste aukera bat emanez, bisita aitzin eta bisita ondoren...

Proiektua 2014an hasi da. Lehen ikerketa eszenografiko eta teknikoak eginak izan dira eta batzorde zientifiko batek erakusketaren gai nagusiak zehaztu ditu.

Ekoizlea : Euskal kultur erakundea.

Ko-ekoizlea : Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ibiltaritzaren partaidea : Etxepare institutua - Donostia.

Aholkulari zientifikoak : Oier Araolaza (dantzaria, formatzailea, [www.dantza.eus](http://www.dantza.eus) atariaren animatzailea), Roger Goyh n che (koreografoa eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarreko lehendakaria), Xabier It aina (dantzaria eta musikaria, CNRS-eko ikerlaria).

## 4.3 | EKEren ekintzen inguruko komunikazioa

### Komunikazioa komunikabideetan

2014an, Euskal kultur erakundeak lanean jarraitu du bere komunikazioa tokiko eta eskualdeko komunikabideetan egiteko.

Elkarlana bilatu dugu kultura informazioa hedatzen duten komunikabideekin, EKEren irudiaren baloratzearen arrangura ukanez. Garrantzitsua da hedapen kanal horietan agertzea bereziki publiko desberdinen gana heltzeko aukera ematen dutelako, lurraldeen, sailen edo/ta hizkuntzen arabera.

Horrela, [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko agenda Eusko Jaurlaritzaren Kulturklik plataforman errepikatuz, ipar Euskal Herriko kultura bizia Euskal Autonomia Erkidegoan hobeki ezagutarazten dugu, EKEren lan federatzailea agerian emanez.

Urtean zehar, publizitate kanpaina batzuetan izan dira, bereziki interneten, EKEk eraman ekintzen sustatzeko (adibidez : [www.irudimena.com](http://www.irudimena.com)).

Oroitaraz dezagun ere, betiere bere ekintzen inguruan komunikatzeko xedearekin, EKE-k multimediar oinarritu erakusmahai bat atxiki duela 2014ko Durangoko azokan, bere webgunearen baliabideak aurkeztuz, besteak beste.

### Komunikazioa sareetan

Euskal kultur erakundeak konduak baditu sare sozial desberdinetan (facebook eta twitter-en bereziki). Gaur egun, ezinbestekoa da tresna horiek egunero segitzea, irudiaren kudeaketa mailan. Guzi horrek komunitate animazio (Community Managing) lan bat plantan ezartzea eskatzen du. Lan horrek, [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko edukiak oraino gehiago zabaltzeko parada eskaintzen du.

- Facebook : 3900 segitzaile
- Twitter (euskarazko kontua) : 1390 harpidedun
- Twitter (frantsesezko kontua) : 640 harpidedun

Bestalde, 2014an, EKE emailing pertsonalisatuan oinarritu da bere komunikazioa eraginkorragoa izan dadin sare konkretu batzuetan (publiko zabala, prentsa, EKEko kide diren artistak eta elkarteak, etab).

Alabaina, hau komunikatzeko modu eraginkorrenetarik bat dugu. Informazioa eskuratuko duen publikoak xeheki zehazteko parada eskaintzen du, pertsonalisazio bat eta kontsultatze estatistiken jarraipen zehatz bat.

## **2014/2020 Euskal Herriko lurralde kontratua**

Euskal kultur erakundeak parte hartu du, garapen kontseiluak alhan ezarri dituen « Kultura » tailerretan, datorren lurralde kontratuaren prestatzeko xedearekin.

Lan horien ondotik, deialdi bat zabaldua izan da, 2015 eta 2016 urteentzat. Euskal Kultur erakundeak ihardetsi dio, ekintza zenbait lehenetsiz, hala nola ondarea, hezkuntza artistikoa, numerikoaren erabilpena, etabar.

## « Culture-Kultura » emaitza fondoa

### ***Helburua : Euskal Herriko kultura aniztasuna sostengatzea Culture-Kultura emaitza fondo amankomunaren bitartez***

Culture-Kultura emaitza fondoa 2011ko ekainaren 22an sortu da, Baiona – Akitania Hegoaldeko Eszena nazionalaren eta Euskal kultur erakundearen ekimenez, Euskal Herriko kultura aniztasunaren eta garapenaren aldeko diru pribatua biltzeko asmoz.

2014ko abenduaren 31n, 13 enpresek Culture-Kultura emaitza fondoa sostengatu dute :

- Victor Hugo Baionan,
- Collectivités services,
- Mécabureau,
- Cegecoba,
- Sud Ouest Mutualité,
- Caisse d'Épargne Poitou-Charentes,
- C & C,
- Lyonnaise des eaux,
- EDF-GDF,
- Consortium Jambon de Bayonne,
- DASSAULT hegazkin lantegiaren enpresa komitea,,
- Pierre Oteiza (laguntza teknikoa)
- Novaldi (web gunearentzat laguntza teknikoa).

13 enpresa horietaz gain, 20 bat pertsona badira emaitzak egin dituztenak.